

Julene Azpeitia
Lehiaketa

Ipuinak eta bertso paperak 2005



JULENE AZPEITIA LEHIAKETA



IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK

2005. URTEA

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertso paperak. 2005. urtea
Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga
Argitaratzailea: Durangoko Udala
Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati
Inprimategia: Gertu. Oñati
Lege Gordailua: SS-1468/05
2005eko azaroa

aurkibidea

7 HITZAURREA

- 7 Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko presidentea

9 IPUINAK

- 11 IZAR URDINA
Paula Motrico
- 19 GAZTELUGATXE INGURUKO LEPOKO EZKUTUA
Ainhoa Ardanza
- 25 EZ!
Olaya Gonzalez
- 33 MEREZI AL DU...?
Nerea Aizpurua
- 41 HAIZEAK ESAN ZIDAN
Oihana Pinilla
- 49 EUREN OROIMENEZ
Maidar Aierdi
- 59 BIZITZAZ HARAINDI
Oihane Unzalu
- 73 OSTADARRAREN ARGIA
Itsaso del Olmo
- 81 IJITOA
Aritz Arrizabalaga

95	BERTSO PAPERAK
97	BERTSO PAPERAK <i>Xabier Goxencia</i>
101	ZUTAZ <i>Eñaut Uruburu</i>
107	EMON BOSTEKOA <i>Iraitz Arando</i>
113	EKIALDE HURBILEKO HERRIALDE FAMATUAREN GATAZKA <i>Gontzal Alkorta</i>

hitzaurrea

lazko edizioaren hitzaurrean berrikuntzaz hitz egin nuen, liburua koloretako irudiekin argitaratu baikenuen. Urterik urte hobetzen ahalegintzen gara, kolorea, irudiak, diseinua... Hala ere, Julene Azpeitia lehiaketaren asmo nagusia ume eta gazteengan irakurtzeko eta idazteko zaletasuna piztea da. Eta honen inguruan egiten den beste guztia asmo nagusi horren lagungarri da. 2005eko edizioari buruz esan beharra daukat idazlan sarituen artean denetarik aurki dezakegula: istorio lazgarriak, maitasun kontuak, abentura harrigarriak, bizitzaren sakonak, poesia... Bitxia da ikustea ume eta gazteek duten imajinazioa eta, aipatzekoa, idazteko duten trebezia. Ausartuko naiz esatera azken urteotan ume eta gazteen artean idazkerak hobera egin duela. Egia da onenak saritzen direla, baina epai-mahaiak, gero eta zailago du saria nori eman erabakitzea.

Horrela jarraitzea espero dut, ume eta gazteek euren onena atera eta paperera eroaten, eta guk hori guztia hartu, liburuan bildu eta irakurtzeaz gozaten.

Durangon, 2005eko azaroan

MARI JOSE BALIER OROBIO-URRUTIA

*Euskara, Kultura eta Hezkuntza
Batzordeko Presidente*

julene azpeitia
lehiaketa 2005

i p u i n a k





Paula Motrico San Emeterio

Irabazlea 11-12 urteko sailean
San Jose - Jesuitak Ikastetxea



Izar urdina

Kaixo lagunok, Peru dut izena, Afrikan bizi naiz eta behin gertaturiko gauza harrigarri bat nator kontatzera. Badakizue Afrikan bero asko egiten duela, eta ni Aljerian bizi nintzenez, ia ez nuen ezagutzen hotza.

Behin, eskolatik irten eta etxera heldu nintzenean, amak horrela esan zidan:

- Peru, basamortura joan behar zara. Bertan bakarrik aurkitzen diren landare batzuk behar baitituz zure aita sendatzeko. Oso gaixorik dago eta landare horiek behar ditu, bestela...

Ez nuen gehiagorik entzun nahi, banekien zer zetorren esaldiaren bukaeran. Momentu hartan ikasi nuen hotza zer zen, eta kalean berrogei gradutan egon arren nire gorputzak, nire begiek, nire besoek, nire hankek... denek sentitzen zuten hotz hura, nire gorputz osoaz jabetzen ari zen hotza, alegia.

Baina nire hankak mugitu egin behar ziren, izan ere ahalik eta arinen joan behar nintzen basamortura landarearen bila bestela... bestela... bestela akabo dena!

Nire hankak, pixkanaka-pixkanaka mugitzen hasi ziren eta ziztu bizian atera nintzen etetik basamorturako bidea hartuz. Basamortuan, hara eta hona ibili nintzen landarearen bila, arrakasta izan gabe.



Gaua laster iritsi zen eta ni oso nekatuta nengoen, baina aita neke guztien gainetik maite nuenez, aurrera jarraitzen saiatu nintzen. Azkenean, nekeak nire indarra gainditu zuen eta area gainean etzanda geratu nintzen, hilda banengo bezala. Bat-batean arean ekaitza hasi zen, baina ez zirudien benetako ekaitza, ekaitzaren erdian neskatxa baten irudia ageri baitzen. Honela esan zidan neskak:

- Jaiki zaitez, Peru, eta begira itzazu irudi hauek.

Zailtasunez lortu nuen jaikitzea. Gero, area artean magiaren bitartez edo, agertzen ari ziren irudiei begiratu nien. Irudi hotzak ziren haiek, guden argazkiak, jendea hiltzen, pertsonak sufritzen...Eta bere aita! Bai, bere aita ere bertan ageri zen, sufritzen ari baitzen. Eskumako begitik bi malko jausi zitzaizkidan. Neskatak bi malkoak eskuan hartu zituen eta haiekin kristalezko botilatxo bat egin zuen, jarraian esan zidan:

- Zure malkoak maitasunez beterik zeuden eta horregatik egin ahal izan dut botilatxo hau. Zure aitaren ondoan zaudenean irekitzen baduzu, botilak zure aitaren gaixotasuna xurgatu eta sendatu egingo da. Baina, begiratu itzazu beste irudiak: gudak, hiltzen ari diren pertsonak...

Horiek ere sufritzen ari dira, baina zoritxarrez ez daude nahikoa malko mundu honetako sufrimendu guztia xurgatzeko, hobeto esanda ez daude zu bezalako bihotz garbia eta eskuzabala duten pertsona nahikoak haien malkoekin odol isuri hau gelditzeko. Gaur egungo pertsona gehienek boterea, dirua eta horrelako ondasunak baino ez dituzte buruan. Pertsona askok bi aurpegi dituzte, kanpotik pertsona onak dirudite eta barrutik, berriz, oso maltzurak dira. Pertsona onak ere badaude baina maltzurrek boterea dutenean inor gelditzerik ez dago... Pertsona batek izan ezik...

- Eta nor da pertsona hori?

- Ni, baina zure laguntzaz bakarrik.

- Eta zer egin behar dut?

- Oraintxe esango dizut.

Neskatak egin behar nuena azaldu zidan eta lehen agerrarazitako botila eman zidan:

- Tori botilatxoa eta sendatu zure aita. Gaueko hamabietan, zure herriko plazan elkartuko gara. Ez hutsik egin.



Hitzok esan ondoren neskaxa desagertu egin zen, eta harekin batera sufrimenduaren irudiak eta area-ekaitza. Ni ziztu bizian abiatu behar nintzen herrirantz nire aita sendatu behar bainuen.

Ettxera heldu nintzenean ama aulki batean eserita zegoen; aita, berriz, ohe gainean etzanda. Ez ote zen beranduegi izango? Aitarengana urreratu nintzen eta botilatxoa ireki nuen ahalik eta lasterren, jarraian argi urdin bat ikusi nuen aitaren gorputzetik irtean eta botilatxoan sartzen, segur aski sufrimendua izango zen. Botila guztiz bete zenean, neskaxaren moduan hura ere desagertu egin zen. Orduan, aita altxatu egin zen eta guztiz sendaturik zegoela esan zigunean, bere besoetara bota nintzen besarkadak eta bekokian musuak emanez. Hura zen zoriona! Eta hura zen poza nirea! Baina momentu hartan joan beharra neukan, neskaxa berezi hari lagundu behar bainion. Gurasoak nirekin joan ziren plazaraino. Bat-batean neskaxa berriro agertu zen eta bere besoak eskaini zizkidan; nik, eskuetatik heldu nion eta biok hegan joan ginen zeru ilunaren erdian aurkitu arte. Bertan, nire malkoetako batzuk isurtzea eskatu zidan. Hala egin nuen eta neskaxak nire malkoak eskutan hartzean izar baten itxura hartu zuen eta argi urdin itsugarri bat xurgatzen hasi zen. Amaitu zuenean, lehen, basamortuan ikusitako irudiak agertu ziren berriz, baina oraingoan ez ziren sufrimenduzko irudiak, pozaren eta bakearen irudiak bai-



zik. Gauaren erdian geunden, baina hala ere jende guztia haien etxeetatik irten zen argi indartsu haren zergatia jakin nahi baitzuten, eta izar urdin hura ikustean denok pozez eta bakez bete ziren, orain izar haren argi urdina ez zen sufrimenduzko argia, bakearen argia baino eta horregatik pertsonarik txarrenen bihotza ere maitasunez bete zen. Izar hark munduari bere alde beltza xurgatu zion. Gutxika-gutxika izarrak lurrera eraman ninduen eta eskerrak eman eta gero agur esan genion elkarri:

- Gure mundua salbatu duzu, denon esker ona merezi duzu -esan nion neskatxari.

- Zure laguntzarik gabe ez nuen lortuko.

- Baina oraindik ez dakit nor zaren, ezta zure izena ere.

- Izar urdin deitu ahal didazu, gehiagorik ezin dizut esan.

Berriz ere neskatxa desagertu egin zen, baina oraingo honetan oroigarri bat utzi zidan, bakearen eta pozaren argi urdina zuen kristalezko botilatxoa agertu baitzen nire eskuetan. Gau hartan, nire gurasoek eta nik lasai asko begiratu genuen zerua. Izar urdinez osaturik zegoen zerua, alegia.





Ainhoa Ardanza Cuevas

Akzesita 11-12 urteko sailean
Landako Ikastetxea



Gaztelugatxe inguruko lepoko ezkutua

Gaur egun, Gaztelugatxeko harkaitz gainean eliza bat dago, baina orain dela urte asko ez zegoen han. Garai batean Gaztelugatxen harkaitz simple bat besterik ez zegoen, eskailera eta elizarik gabe. Bertako jendeak ospakizun handietan haraino igeri egiten zuten, eta ondoren goraino eskalatzen zuten. Herritar haiek urte askoan zehar bizi ahal izan ziren inguru hartan. Baina joan ere egin behar izan zuten, bertara jende gehiago etorri zenean. Joan aurretik, ordea, zerbait ezkutatu zuten bertan, altxor bat.

Urteak igaro ziren eta Mirari izeneko gazte batek kondaira honen berri jakin zuen. Bazekien altxor bat edo antzeko zerbait zegoela ezkutatuta. Mirarik entzuten zuen edozer gauza sinisten zuen, eta sinistuta zegoen zerbait baliotsua zegoela han. Honegatik bere lagun Amaiarekin batera harkaitzaren goialdera txangoa egin zuen goiz eguzkitsua batean.


Mirarik eta Amaiak gogotsu ekin zioten bilaketari. Ez zeukaten altxorra non zegoen inongo arrastorik, ez zekiten altxorrik zegoenik ere, baina ilusioz beterik zeuden biak.

Halako batean Amaiak Mirariri dei egin zion:

- Mirari, Mirari! Hemen zerbait dago, harkaitz azpian!

Mirari korrika azaldu zen Amaia zegoen tokira. Harri bat erdi jasota zeukan eta azpian kutxa txiki bat zegoen, oso txikia, harri azpian erdi lurperatua. Zabaldu eta bertan zegoen papertxo bat irakurtzen hasi zen:





- «Behean, behean, ezkerreko aldean, arrainaren ahoan»

Mirari saltoka hasi zen:


- Hau zerbait da! Zerbait aurkitu dugu!

Bi gazteei bihotzak salto egingo ziela ematen zuen. Orain paper honen laguntzaz zerbait aurkitzea baino ez zitzaien falta.

Hurrengo egunean leku berean aurkitu ziren lagunak, bainujantzi eta urperatzeko gailu eta guzti. Amaiak asmatu zuen: altxorra behean egon behar bazen, urpean behar zuen egon. Salto batez murgildu ziren neskak. Orain harkaitz tartean zeuden. Amaiak keinu bat egin zion lagunari. Ezkerrerantz biratu zuten, paperak zioen bezala, baina ezkerraldean harriak besterik ez zeuden. Mirarik aurpegi tristea ipini zuen, baina berehala bi gazteek beste zulo bat ikusi ahal izan zuten. Barrura sartu ziren. Lurpeko kobazulo antzeko bat zen, urik gabe. Amaia eta Mirari zutik ipini ziren. Han barruan arnasa har zitekeen. Hura paperean agertzen zen arrainaren ahoa zen, zuloa. Eta hantxe aurkitu zuten gazteek altxorra, lepoko bat. Lepoko ederra zen, harribitxi askokoa. Baina bi lagunek ez zuten lepokora hurbiltzeko astirik izan. Kobazuloa ixten hasi zen, eta ura sartzen zuloetatik.

Neskek ihes egitea lortu zuten, baina sekula ez ziren kobazuloa aurkitzeko gai izan.





Olaya Gonzalez Etxegibel

Irabazlea 13-14 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Ez!

- Yasminder, mesedez, etorriko zara hona? -amaren oihua entzun dut.

Egongelatik etorri da soinua eta nire gelara iritsi arte ez da geratu.

- Banoa ama! -gelatik irten naiz eta egongelara abiatu naiz- Zer nahi duzu?

Etxea ez da oso handia, lau gela bakarrik dauzka, amaren logela, nirea, sukaldea eta egongela. Azkena da politena. Ez du leihorik, ez daukagu horren beste dirurik, baina kolore guztietako telak daude eskegita. Ez dago mahairik eta ama lurrean dago jesarrita, bere kontu koadernotxoak irakurtzen. Kuxin bakarra niretzako dago prestatuta. Arrosa da, eta kristaltxoak ditu alboetan. Berde koloreko hariak zuhaitz formako marrazkia egiten du. Hantxe jesarri naiz, hankak gurutzatuz.

- Ama? -galdetzen diot- Zergatik deitu didazu?

Amak begiak altxatu ditu bere koadernotxotik eta niri begiratu dit. Bere begi berdeak nireak bezalakoak dira, baina bereak ez dute bizitzarren distirarik. Ahoa zabaldu du eta bere hortz horiak ikusi ditut. Itxi egin du, dudan balego bezala. Berriz ere zabaldu du.

- Yasminder -oso arraroa da niri Yasminder deitzea. Beti deitzen dit Yas, arazo handi bat dagoela dirudi-. Alabatxo maitea. Gaur, dendara, Puna hoteleko gizona etorri



da. Dendako kuxinik politena atera diot, baina berak eskuarekin ezetz esan du –arazoa izugarria izan behar dela pentsatzen dut, dendan gertatzen dena kontatzeko-. Nota bat eman dit eta joan egin da.

- Ama, zergatik kontatzen didazu hau dena?

Amak, begirada batekin, isiltzeko esan dit.

- Orduan nota zabaldu dut eta aho zabalik geratu naiz –geldialdi bat egin du-. Zurekin ezkontzea nahi zuela idatzi du paperean.

Oraingoan ni geratu naiz aho zabalik.

- Telefonoa hartu dut hori irakurtzean eta gizonari deitu diot, eta... eta baietz esan diot.

Negar anpulek nire begietako atera deitu dute. Saiatzen naiz ez zabaltzen, baina ni baino gogorrago bultza egiten dute eta nire etxera sartu dira. Altxatu eta nire gelara noa, amak ez du ezer egiten ni geratzeko.

Gaur Tokigashu jauna etorri behar da. Gure ezkontzarako gauzak prestatzeko. Japoniarrak da. Leihotik nire azken askatasun eguna ikusten nago. Hamahiru urte ditut eta 19. mendearen amaieran gaude. Nire tortura heltzeko bi ordu bakarrik falta dira.

Amak deitu dit. Sukaldera abiatzen naiz, eta han ikusten dut: kolore desberdinetako telak ditu eskuan, nire jantzirako dira. Denak dira ilunak, horregatik zuria oso ondo ikusten da. Ertzetan hari distiratsuz egindako bordatua dago. Amak hori hartu du, eta nire inguruan batzen hasi da. Esertzeko esan dit: makilatze ordua dela esaten dit.

Masailetan hauts gorri-marroia ipintzen hasia da. Ondoren margo gorri bat hartu eta bekokian puntu bat margotu dit. Nire ile beltza hartu eta orrazten hasi da. Kopeta bat egin eta gero apaintzen hasi da.


- Hala da, Tokigashu jauna –ezin diot aurpegira begiratu, horregatik ama dabil bakarrik hitz egiten-. Nire Yasminder oso neska jatorra eta zintzoa da.

- Pozten naiz –Japoniarrak niri begiratzen dabil-. Yasminder. Ze izen polita. Zerbait esan nahi du?

Oraingoan neuk hitz egiten dut.

- Bai –begirada lurretik altxatu dut-. Askatasuna esan nahi du.

Ama eta Tokigashu jauna elkarri begira geratu dira.



Euria ari du. Lainoek dena estaltzen dute. Nire jantziak blai eginda daude, eta aurpegia ere bai. Ez dago inor kalean, eta etxeetako argiak itzalita daude. Dena ilun-ilun dago. Katu beltz bat pasatzen da nire aurretik, buelta erdi eman du eta nire hanken artean pasatu da. Nire bidea jarraitzen dut. Katua nire atzetik dabil.

- Kaixo katutxo -katua niri begira geratu da-. Ez duzu etxerik? Nirekin geratuko zara?

Katua hurbildu eta nire atzamarrak miazkatzen hasi da. *lalie* deitzen diot. Bakardadea esan nahi du. Plazan eseri naiz eta *lalie* nire gainean etzan da. Belarrien atzealdean zauri bat du. Odoletan dago. Nire musu zapiak bendatu diot.

Zaratak esnatu nau. Eguna da eta merkatu eguna. *lalie* arrain bat du ahoan eta nire eskuetan utzi ondoren ondoan eseri da. Jaten hasi naiz. Amaitu ondoren altxatu naiz, eta merkatura hurbildu naiz. Oso egun zoragarria egiten du eta postuak beteta daude. *Lekeya* jaunaren semea ikusten dut, afrikarra da, keinu bat egiten dit eta hurbiltzeko esaten dit. Bere aitaren postua da, niretzat, politena. Bere kontinenteko gauzak saltzen dituzte. Oso mutil jatorra da, nire adinekoa. Nahiko erakargarria da, begiak marroi ilunak ditu, ilea oso labur, eta beltzarana da. Betidanik izan gara lagunak. Heltzen naizean bere postura, bere begiradan dena dakidala ikusten da. Ezkondu behar naizela daki. Egurrez egindako eraztun bat hartu eta nire atzamarrean jartzen du. Ondoren, ezkontza ostean berarekin joateko esaten dit eta joan egiten da.

Amaren postua desagertu egin da. Zulo bat dago bere lekuan.

- Yasminder -norbait deika dabil, baina ez diot kasurik egiten-. Yasminder. Azkenean aurkitu zaitut.

Bitxikeri dendako andrea da. Bere ile beltza solte eramaten du beti, eta *saria* sokekin lotuta eramaten du, oso potola dago.

- Ama oso kezkatuta dago. Etorri nirekin.

Begietara begiratzen diot, eta buruarekin ezetz esaten dut. Negarrez hasi naiz, eta *lalie* besoetan hartzen dut. *Idnepu*, bitxikeri dendakoa, besoetan hartzen nau eta etxeraino eramaten nau. Ama dago atean. Nire ondora heltzerakoan hau esaten dit:

- *Noej etsitpab reinuam* -gaueko ekintzak, egunez konpentsatzen dira.

Eliza oso handia da. Dena zuria da, berria. Nire ezkontzarako eraikita dago. Tokigashu oso aberatsa da eta eraikitzeko esan du. Nire *saria* guztiz zuria da, begiak bakarririk ikusten dira. Musika entzuten dut barrualdean, ate zabaltzen da eta sartu egiten naiz. Tokigashu eserita dago eta abadea ere bai, ni zutunik egon behar naiz.

- Tokigashu jauna -abadeak ezkontza hasi du-. Yasminder zuretzako hartu nahi duzu?


- Bai

Erantzuna min egiten dit bihotzean.

- Orduan har ezazu eta eraman zure etxera.

Niri ez dit galdetzen, behartuta nago eta. Bere etxera eramaten nau, eta sufri-mendua hasten da, ohea malkoz beterik dagoela.

Eguna da jantzi, eta Lekeyaren semearengana habiatzen naiz. Elizaren kanpoaldean dago itxaroten. Eskua hartzen dit eta korrikan hasten gara. Portura heldu gara, itsasontzi baten sartzen gara eta beste bizitza berri baten bila irteten gara. Baina nire barrualdean zerbait sentitzen dut, eta ez da nire ama uzteagatiko pena.





Nerea Aizpurua Iglesias

Akzesita 13-14 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Merezi al du?

1998an gertatzen da istorio hau, zehatzago esanda urtarrilaren zortziko arratsalde eguzkitsu batean.

Istorio honetako protagonistak, Patrik du izena baina bere “lagunek” Peli deitzen diote. Hitz gutxitan azalduko dizuet nolakoa den: Aurpegiz liraina baina izaeraz zakarra. Oso harroputza da eta besteetaz barrez ibiltzen da egun osoan, ia ez du lagunik, baina berari hori ez dio axola. Txikitako bi lagun ditu bakarrik, Andoni eta Imanol.

Orain hasiko nahiz arratsalde horretan gertatu zena azaltzen.

Bazkaltzen ari ziren bitartean, Andonik eta Imanolek, mendira bidaia bat egitea pentsatu zuten. Arratsalde hartan joatea proposatu zuen Imanolek, eta horrela egin zuten, bazkaltzen bukatu eta martxan jarri ziren mendiari bisita bat egiteko.

Oso pozik zihoazen hirurok autoan kantatuz, baina bat-batean Peliri, (hau baitzen gidatzen zegoena), bolanteak buelta osoa eman eta errepidetik atera ziren. Autoa basoan barrena zihoan, eta zuhaitz baten kontra jo zuenean gelditu zen.

Imanolek eta Andonik ez zuten kolpe handirik hartu, ondo zeuden, baina Peli oso larri zegoen. Imanolek mugikorra hartu eta larrialdietara deitu zuen.

Ospitalean zeuden hirurok. Imanol eta Andoni koilarin batekin. Peli arriskutik kanpo zegoen baina aurpegia deformatuta zeukan: ia ez da pertsona liraina.

Etexera bueltan, Pelik esaten die bere lagunei:

- Aizue, nik ez nuen bolantea ukitu ...
- Eta horrekin zer esan nahi duzu? - esaten du Imanolek.





- Ba, gure istripua ez dela gura barik izan, nik uste, norbaitek eragin duela.

Gau hartan, Peli lo zegoen bitartean, Laga hondartzako itsasgizon batek berba egin zion. Berak amets bat zela pentsatu zuen baina segituan konturatu zen ez zela horrela. Bere bi lagunei deitu zien beldurtuta zegoelako.

Hirurak zeuden jadanik Peliren etxean, eta itsasgizonak Peliri hitz egiten hasi zitzaion:

- Mutiko azkarra zu e...?.

- Bai, badakit azkarra naizela.

- Eta orduan jakingo duzu, zuk edukitako istripua ez dela kasualitatez izan ezta?

- Ba nik uste ezetz.

- Ba egia da, nik eragin dut istripu hori, jakin dezazun ez duzula besteen kabuz edo itxuragatik barre egin behar. Nahi baduzu zerbait egin dezaket zure izaera eta itxura aldatzeko.

- Bai?, baina zer?

- Hamabost txirla mota desberdin aurkitu beharko dituzu zure izaera aldatzeko, eta hamazortzi zure itxura aldatzeko. Ez pentsa hain erreza denik, urteak eta urteak emanngo dituzu txirla horien bila, pentsa, zure bizitza osoa alegia. Aurkituko dituzun lehenengo hamabost txirlek zure izaera aldatuko dute eta besteek itxura. Onartzen ahal duzu?

- Ez badago beste erremediorik... onartzen dut.

- A!, ahaztu baino lehen: bidaia hau, zuk bakarrik egin beharko duzu, inoren laguntzarik gabe. Lehenengo hamabost txirla dituzunean, Lagako arroketa utzi, itsasaldiak niri ekarriko dizkidalako, eta orduan beteko dut zin egin dizudana. Konforme?

- Ongi da.

- Beno, zorte ona izan. Hemendik aurrera hazten da zure bidaia!. Hemen uzten dizut txirla mota desberdinen papera, edonon aurki ditzakezu.

Peli oso urduri dago. Urte bete igaro da jadanik Itsasgizona bere etxean agertu zenetik eta hiru txirla bakarrik aurkitu ditu: bere ohe azpian, Benidormen eta Mañariko harrobietan. Oraindik hamabi geratzen zaizkio, etsita dago Peli.

Peliri hau gertatu zitzaionean, hogeita bat urte zituen eta hogeita hamasei ditu orain, txirla bat bakarrik geratzen zaio!, korala motakoa.



Ezetz jakin non aurkitu zuen azkena?, bere etxean!, txikitan egindako “La Arboledara” bidaiakoa. Arroketan ezkutatuta aurkitu zuen eta poltsikora sartu zuen oroi-garritzat, bere gela txukuntzen ari zela aurkitu zuen.

Pena eman zion koral horren jabea izateari uztea, baina ondorioak hobeagoak izango zirela pentsatu zuen.

Arratsalde hartan joan zen txirla guztiekin Lagako arroketara, eta han utzi zituen, itsasaldiak eraman zituen arte.

Bat-batean, Peli, pertsona jatorra eta ona bihurtu zen. Gogo handia zuen lagunak egiteko eta bere bi lagunekin egoteko.

Lagun asko eta onak egin zituen Pelik, eta konturatu zen, itxura ez dela izaera bezain garrantzitsua, eta erabaki bat hartu zuen: bidaiarekin ez jarraitzea, bertan bera uztea. Konturatu zen hogeita bat urtetik hogeita hamasei urtera, bere bizitzako momentu asko galdu zituela eta orain aprobeixatu nahi zituela bere lagunekin.

Orain ez dio garrantzia asko ematen kanpoko itxurari, jendeak, den moduan maitatzen duelako, eta pertsona liraina izango bazen, izaera aldatuko zuen berriro. Lagako hondartzara joan zen Peli, Itsasgizonari berria ematera.



- Ziur zaude mutiko?

- Bai, oso ziur nago. Orain nire bizitza aprobetxatu behar dut, urte asko galdu baititut. Horrela geratzea pentsatu dut, kanpotik itsusia baina barrutik jatorra.

- Oso ondo iruditzen zait zure erabakia, eta horregatik, opari bat emango dizut:

- Zein?

- Zuk txikitan, “La Arboledan “ aurkitutako korala.

- Zelan dakizu “La Arboledan” aurkitu nuela?

- Mutiko, tontoa naizela uste duzu? Tira, hartu zure korala eta segi, merezi duzu eta.

- Ea ikusten garen hondartzetan.

- Trankil, zeinu bat egingo dizut. Beno, joan beharra daukat. Agur!.

- Bai, agur!

Azkenean, Pelik zoriontsu gozatu zuen bizitza bere inguruan zituen lagunekin, eta ikasi zuen, bai, ez zuela besteetaz barre egin behar...





Oihana Pinilla Arenaza

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Haizeak esan zidan

Urria zen. Udazkena hasita zegoen. Hotza zetorren, eguraldi kaskarra... negua ate joka genuen, eta gu zuhaitzetatik jausten hasiak ginen. Haizeak suabe-suabe laztantzen gintuen, lurreraino eramanez. Guk ematen diogu urtaro honi bizia, mugimendua, bere kolore gorria, horia eta marroia. Hostoak zaharkitu egiten gara. Badirudi zuhaitzak ez gaituela gehiago behar, berak bakarrik igaro nahi dituela horren hotzak diren hilabete hauek eta bere bizilekutik botatzen gaituela. Ez dut ulertzen nola bizi daitekeen guk ematen diogun berotasunik gabe. Gu gara bere berokia. Baina erortzen garen momentuan oso baliagarria den zerbait jasotzen dugu, askatasuna, libreak gara, ez gaude loturik. Udaberrian berriro hosto berriak edukiko dituelakoan agurtzen dugu gu sortu gintuen enborra.

Haizea da gehien maitatzen eta zaintzen gaituena. Berak eramaten gaitu bere magalean, leku ezberdinetara, bidaiak egitera, abentura desberdinak bizitzera. Egiten dituen zarata eta txistuek bere ahotsa dirudite, zerbait esaten ari zaizunaren seinale dira.

Hostoek, egunean zehar, bidaia asko egiten ditugu, eta dantza bat egiten egongo bagina bezala mugitzen gara, alde batetik bestera.

Lehenago egunean, zuhaitzetik erori nintzenean, haizeak zera esan zidan: «Etorri nirekin zure lehen bidaia egitera». Eta berarekin eraman ninduen nire lehendabiziko abentura zirrarragarria. Hasieran bortizki mugitzen nintzen, baina gero, ingurua begiratzen jarri



nintzen eta lasaitu egin nintzen. Momentu horretan haizeak leunki mugitzen ninduela sumatu nuen.

Lehendabizi, herrian zehar eraman ninduen eta, behin bertara heltzean, momentuaz goza nezan txistu egiteari utzi egin zion. Bera ere nekatuta egongo zen beharbada. Gelditzean ni lurrera erori nintzen. Ez nekien zer egin eta gizakiei begira gelditu nintzen une batez. Beraien bizimodua oso arraroa egiten zait. Haurrak izaten dituzte, lan egiten dute, oso bizimodu estresatua daramate, ez dute erlaxatzeko unerik, eta etxe deituriko toki batzuetan bizi dira. Ez dut ulertzen nola bizi diren, baina hala ere, oso atseginak iruditzen zaizkit, zapaltzen zaituztenean edo zartako bat ematen dizutenean izan ezik.

Gizaki batzuek ez gaituzte kontutan hartzen, uste dute ez dugula bizitarik. Guk, ibiltzen jakin ez arren, eta hitz egin ez arren, bizia dugu.

Haizeak bere indarra berritu zuen eta herriari begiratu laburra eman ostean, mendi aldera abiatu ginen. Gogoko dut belarraren kolore berdea eta bustitzen denean botatzen duen usaina. Gaua heldu zen, eta lo egiteko ordua iritsi zen. Lokartzen hasi nintzen eta haizeak zelai gainean utzi ninduen. Belarrak kilimak egiten zizkidan. Ilargiak distira berezia zuen. Noizbait hara gora igoko ote nintzen galdetzen nion nire buruari.

Nire ametsetan murgildu nintzen. Nire lehenengo bidaia nolakoa izango ote da? Hurrengo egunean jasoko nuen erantzuna.

Egusentian esnatu nintzen, kukurruku baten soinuarekin. Oso egusenti polita zen, zerua kolore gorri berezi batez tindatua zegoen. Eguzkia ateratzeko ordua iritsi zen eta lainoek lekua utzi zioten eguneko erregeari. Han geratzeak merezi zuen, ezer egin gabe, zeruari so. Oso pozik nengoen, baina konpainia falta sumatu nuen. Lagun baten beharra nuen, denbora pasatzeko. Berarekin batera bidaiak egiteko, batez ere, gauzak konpartitzeko.

Berriz ere herri aldera abiatu nintzen. Parke batera heldu nintzen eta ume asko ikusi nituen bertan jolasten. Han, ni bezalako hosto asko ikusi nituen, jaiotako zuhaitzen azpian eta oso pozik jarri nintzen. Beraiegana hurbildu nintzen eta guztiak dantzan zeudela ikusi nuen. Guztien artean hori koloreko bat ikusi nuen. Oso berezia zen eta, hain polita iruditu zitzaidan, gertutik ikusteko gogoia piztu zitzaidala. Bat-batean, hurbiltzen nin-



doala, haizea indar handiz bueltatu zen eta hosto guztiak bueltaka hasi ginen gora eta behera, alde batetik bestera.

Une horretatik ez dut nire historik gustukoena berriz ikusi. Nik berriro ikusi nahi nuen eta berehala hasi nintzen bere bila. Haizeari laguntza eskatu nion, berak mugitzen nauelako. Eta berak atsegin handiz lagundu zidan.

Lehendabizi parketik begiratzan hasi nintzen. Txin-txaun artetik begiratu nuen, baina han zeuden hosto guztiak marroi kolorekoak ziren. Zuhaitzak zeuden ingurutik ere begiratu nuen, baina ez zegoen bere arrastorik. Parkeko aulkietan ere ezer ez.

Geroxeago, inguruetakoa kaleetan begiratu nuen. Baina bat-batean, haizeak kristal baten kontra eraman ninduen eta han itsatsita geratu nintzen. Nik bakarrik ezin nuen handik atera, baina nori eskatu behar nion laguntza? Orduan, ume bat agertu zen. Irribarre zoragarria zuen, eta saltoka etorri zen niganaino. Lehenengotan ez ninduen ikusi. Aurpegia ni nengoen kristal berean jarri zuen. Keinu barregarriak egiten hasi zen, eta barruan zegoen jendeak barre egiten zion. Ni ikusi ninduenean, berehala lagundu zidan handik ateratzen. Tiraka hasi zen, eta ia-ia zatitan hautsi ninduen, baina zorionez, ez zen horrelakorik gertatu. Eskerrak eman nizkion, berak ulertu ez arren.

Kale ertzetatik begiratu nuen, edozein leku arakatu nuen. Ez nekien nondik gehiago begiratu.

Hostotxoa aurkitzeko itxaropena galdu nuen eta, gainera, leher eginda nengoen. Zuhaitz batera igo nintzen. Eguerdia zenez, jende guztia etxean zegoen, bazkaltzen. Haurrak joanak ziren parketik eta ez zegoen zaratarik, haizearen barbaroa soilik. Lasaitasun handia zegoen, eta logura sartu zitzaidan. Hainbeste mugitu ondoren, eta inola presarik ez nuenez, siestatxo bat bota nuen.

Euri tanta batek esnatu ninduen. Batzuek esaten duten bezala, «goiz gorri, arrats euri». Egunsenti gorri egin zuen, eta arratsaldean euria barra-barra hasi zen. Sekulako euri zaparradekin, aterpe bat bilatzen hasi behar nuen, bestela zimeldu egingo nintzen.

Parkearen beste aldean, xaboi kaxa huts bat ikusi nuen eta barruan sartzea erabaki nuen. Barruan goxo-goxo nengoen. Beste loalditxo bat egin nuen. Norbait negarrez zegoela iruditu zitzaidan. Begiak ireki, eta zera ikusi nuen: bilatzen nenbilen hostotxo

horia. Nik berak aurkitu ez, eta berak aurkitu ninduen. Negarrez zegoen eta berarengana hurbildu nintzen. Zer gertatzen zitzaion galdetu nion eta berak gertatu zitzaion guztia kontatu zidan: itxura denez, dantzan zebilen bitartean, haize bolada hura etorri zen, eta parkeko beste aldera eraman zuen. Han, sekulako zartakoa hartu zuhaitz baten kontra eta, geroxeago, haur batek zapaldu zuen, eta zaurituta gelditu zen. Euria hasi zenean, nire antzera, aterpe bila hasi zen eta, ustekabean, ni ikusi ninduen kaxaren barruan.

Atertu zuen, eguzkia irten zen. Handik irten eta leku lasai batera eraman gintuen haizeak. Hitz egiten aritu ginen eta bere bizitza kontatu zidan. Beti bakarrik zegoela esan zidan. Zuhaitza utzita, haizeak beste hostoak zeuden lekura eraman zuen. Han, denak berdinak ziren eta bera desberdina zela ikustean, inork ez zion kasurik egiten. Bakarrik uzten zuten.



Nik ere ordura arte bizitakoa kontatu nion. Biak bakarrik geunden, inork ez zuen gurekin bidaiatu nahi. Orduan berak ia hurrengo bidaia berarekin egingo nuen galdetu zidan eta nik, nola ez, baietz erantzun nion oso gustura.

Gure bigarren bidaia lehenengoa baino askoz hobea izan zen. Munduko hainbat leku bisitatu genituen, baina, ederrena elkarri egiten genion konpainia zen. Jadanik ez ginen aspertzen eta ederto konpontzen ginen elkarrekin.



Baina egun batean, dena bukatu zen. Nire lagunak istripu bat izan zuela esan zidan haizeak. Berriz ere zapaldu zutela. Nik ez zitziola ezer gertatuko uste nuen, aurreko istripuaren antzerako zerbait izango zela, zauriren bat izango zuela eta laster sendatuko zela. Baina ez zen horrela izan. Hil egin zuten, lurraren kontra txikituta utzi zuten. Nik pena handia hartu nuen. Haizeak nire alde egin zuen momentu hartan.

Harrezkero, bakarrik bizi naiz, eta ez ditut bidaia asko egin. Haizearekin jolasean aritzen naiz batzuetan, berarekin konpartitzen ditut gauza guztiak. Asko lagundu dit eta beti nirekin egon da. Bera da nire betiko laguna.



Mainer Aierdi Gazteluiturri

Irabazlea 17-18 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua



Euren oroimenez

Andreas:

1940ko maiatzak 11:

Gaur goizean goiz jaiki naiz. Zapata denda ireki aurretik lan asko egin behar nuelako. Bezero asko izan ditut, udaberriko zapatak heldu baitzaizkigu, jada. Denda itxi ondoren kafetegira joan naiz eta Petter-ekin egin dut topo. Poloniako lurralde batera bidali behar dutela dirudi, jeneral egingo dutela esan baitiote. 14:30ak dira eta Margot ez da etxera iritsi. Zoriontsu naiz, lanean gauzak oso ondo doazkit eta Margotekin ezin hobeto nago. Zein azkar doan denbora. Badirudi ezkontza eguna atzo izan zela, baina bi urte igaro dira ordutik. Etxean ere oso ondo konpontzen gara elkarrekin, umeak edukitzeari buruz hitz egin genuen bart gauean baina ez zait momentu egokia iruditzen gizarteko egoera nola dagoen ikusita. Gizonak frontera joatera derrigortzen dituzte eta ez dakit nire txanda iritsiko den. Oso kezkatuta nauka Margotek. Zortzi hilabete pasa dira Alemaniak Polonia eraso zuenetik eta ez dauka bere gurasoen berririk. Egunkarietan irakurri dugunez, judutar guztiak ghettoara bidali dituzte eta Margoten familia bertan dagoela uste dugu. Beldur naiz. Inguruetako judutarrak bertara eramango dituztela dio jendeak eta ez dakit zer pentsatu. Judutarrak baino hobek sentitzen al dira horrela tratatzeko? Non ote dago Margot? Berarekin.

- Andreas! Andreas! Andreas!

- Zer gertatu da?



- Margot! Margot, eraman egin dute!
- Eraman? Nork? Zergatik? Zer?
- Gizon batzuek hartu dute eta gero kotxe batean sartu dute. Zuri deika zegoen, ahal izan dudan azkarren etorri naiz.
- Baina nora eraman dute? Eta zergatik? Margot!
- Judutar guztiak lurralde batera eramango dituztela entzun dut. Frank eta bere familia ere kotxean sartu dituzte.
- Lurralde batera? Petter!
- Eraman egin dute! Baina zergatik? Berak ez du ezer egin! Zergatik egiten dute hau? Non ote dago Petter! Han!
- Petter! Petter! Margot eraman dute!
- Zer? Eraman? Nora?
- Zuk lehen esan duzun lekura!
- Zer? Ziur al zaude?
- Bai Adolf-ek esan dit kotxe batera nola sartzen zuten ikusi duela. Zer egin dezaket Margot etxera ekartzeko?
- Andreas sentitzen dut baina hori ezinezkoa izango dela uste dut.
- Baina zer diozu! Zergatik?
- Margot Poloniara eraman dutelako.
- Poloniara? Ghettoan sartuko dute?
- Ez, kontzentrazio esparru batzuk sortu dituzte judutarrentzat. Sentitzen dut benetan. Orain dela ordu bete esan didate egin behar zutena.
- Zuk bazenekien? Bazenekien eta ez duzu ezer egin?
- Nik ezin dut ezer egin. Hitlerrek judutarrak uharte batera bidaltzea nahi zituen. Zorua! Baina ezinezkoa gertatu zaionez kontzentrazio esparruak sortu ditu. Andreas, Margot kontzentrazio esparru batera eramaten badute ez dut imajinatu ere egin nahi zer egingo dioten berari eta berarekin dauden beste guztiei.
- Baina non dago? Zer egingo diote?

- Nik ez dakit ezer gehiago. Ahal dudan guztia egingo dut Margot non dagoen jakiteko. Zoaz etxera eta ez zaitetz etxetik beharrezkoa baino gehiago irten gauzak lasaitu arte, behintzat. Egoera ez dago batere ondo, hobe da istilurik ez ateratzea.

- Etxean egon? Eta horrekin zer egin dezaket? Margot eraman egin dute eta nork daki zer egingo dioten, eta nik etxean egon behar dut?

- Andreas, hau oso gauza serioa da. Benetan, zoaz etxera eta ahal dudanean, berriekin joango natzaizu.

Bi aste pasatu dira eta ez dut Petterren berririk. Zer gertatzen ari ote zaio Margoti? Gauzak okerrerantz doaz. Alemaniako judutar guztiak kontzentrazio esparruetara eraman dituzte, Frantzia eta Italiakoekin batera. Hauetaz gain beste asko ere bidean daude. Gudak aurrera jarraitzen du eta herriko gazte eta gizon asko fronteetara eraman dituzte. Ni ez noa. Ez dakit zergatia baina Petterrek horretan zerikusia izan duela uste dut, Margoti gertatutakoaren errudun sentitzen dela uste dut. Bere zain jarraituko dut.

Petter iritsi da. Berarekin hitz egin eta hilabete geroago agertu da. Zer berri dakarkit?

- Petter! Berririk?

- Aurkitu dut! Margot aurkitu dut!

- Zer? Non dago? Zelan dago?

- Auschwitz-era eraman zuten. Bertan dagoen lagun batek baieztatu dit. Ez dakit zelan dagoen, ez eta bizirik dagoen ere.

- Baina zerbait gehiago jakin beharra dut! Nola atera dezaket bertatik?

- Nire lagunak ahal duen guztia egingo duela ziurtatu dit baina badakizu hau ez dela broma kontua, bere bizitza arriskuan jartzen ari da, eta baita ni ere. Orain itxaron egin behar duzu, itxaron besterik ez. Bizirik badago bere berri ekarriko dizut albait arinen.

- Eskerrik asko Petter, benetan, denagatik.

Horrela agurtu dut. Petterrek ondo ulertu du azkeneko hitza eta irribarre egin dit, beraz, nik uste nuena egiaztatuta dago, frontera bidali banindute hilik egongo nintzatekeen, jadanik.



Urtebete daramat berrien zain eta hainbeste itxaron ondoren esperantza galtzen hasita nago. Eskerrak Petter agertu den.

- Andreas! Pozten nau zu ikusteak. Gogo handia nuen zu berriz ikusteko. Begira zer dakardan.

- Zer da? Gutuna?

- Bai, Margoten gutuna!.

Bum, bum, bum... bihotzeko taupadak bizkortzen ari zaizkit, gero eta arinago, gero eta arinago. Karta eskuetan daukat eta birritan pentsatu gabe zabaldu egin dut:

Andreas, Andreas! Non zaude? Zergatik sartu naute leku honetan? Ez daukagu jatekorik, ez urik, ez arropa lodirik, dena kendu ziguten, baita urrezko haginak ere. Ez dakit zer gertatzen ari den. Egunero jende multzo handiak sartzen dituzte leku batean dutxa bat emateko asmoz, eta ez dira inoiz itzultzen, hil egiten dituzte baina ez dakit nola, eta ez dut jakin nahi ere. Egunero, orduro, minutoro, segundoro gorpuak hilik ikusten ditut nire aurrean, begiratzen dudan alde guztietan. Gero, gorpuz beteriko pilo handietan, erre egiten dituzte guztiak gure aurrean. Ezin dut gehiago. Duela hiru hilabete amaren gorpuak ikusi nuen beste hainbaten azpian, zergatik? Eta aita? Zer gertatu zaio? Noiz bukatuko da guzti hau? Andreas, etxean egon nahi dut, zurekin, hori besterik ez, hainbeste eskatzen al dut? Zergatik ez gaituzte bakean uzten? Ez dut ezer gehiago behar bizitzeko. Ez dakit zenbat denbora jasan ahal izango dudan hau. Ilea ebaki digute, gauzatzat hartzen gaituzte, gosez hiltzen ez direnak gaixotasunen batek eramaten ditu, sarnak, tifusak, ... hau jasangaitza da. Zergatik ez ote naiz hiltzen behingoz? Ezin izango naiz inoiz hemendik atera, ezinezkoa da. Maite zaitut eta jakin ezazu zu zarela bizirik iraunarazten nauen arrazoi bakarra.

Margot

- Berarekin joan behar dut. Hil egingo da bestela! Berarengana eraman behar nauzu!.

- Andreas, gogoratzen al duzu Margot eraman zuten egunean esan nizuna? Ni kontzentrazio esparru batera bidaltzeko asmoa zutela nagusiek.

- Bai, baina zer...

- Bihar Auschwitz-era noa. Jeneral izendatu naute eta jendea behar dute bertan.

- Eta zu, Margot bezalako jendea hiltzera zoaz? Zu beraiek bezalakoa zara!

- Andreas! Gauzak ez dira hain errazak!. Badakit Auschwitz-era joanez gero haie-tako bat izango naizela baina ez dut beste aukerarik.

- Baina zelan? Hori ezinezkoa da...

- Andreas, galdera bat egin behar dizut eta ondo pentsatu erantzun baino lehen. Zure bizitza emango zenuke Margot ikusi ahal izateko?

- Bai, noski. Zer egin behar dut?

- Bihar nik Auschwitz-era eramango zaitut nirekin. Bertara iristen garenean, barruan sartuko zaitut. Hortik aurrera zure esku dago Margot ikustea edo ez.

- Ados, bihar zurekin joango naiz.

Furgoneta batean goaz biok, bera aurrean eta ni maleteroan janari eta likore botila artean. Hauek ofizial alemanentzat dira, beraien ospakizunetarako, 100 metroko distantziara milaka pertsona gosez hiltzen ari den bitartean. Nazka ematen dit.

Bidaia oso luzea egin zait baina iritsi gara. Furgonetatik jaitsi bezain laster kirats batek astindu nau. Auschwitz hesitutako leku bat da eta hainbat txabola daude barruan. Petter agurtu eta hesiaren barrualdera sartu naiz. Margotek arrazoia zuen, begiratzen dudan edozein aldera begiratura hildakoak ikusten ditut eta kiratsa jasanezina da. Non ote dago Margot? Ezkerraldean 10 urteko bi neskatila, edo mutiko, ez dakit ezin ditut desberdinu. Oinetakoak eta arropa kentzen ari zaizkio hildako gorputz bati. Ez dakit zer egin, egoera pentsatzen nuena baino askoz txarragoa da, hau ez da bizitzea, hemen animaliak edo hauek baino gutxiago bagina bezala tratatzen gaituzte. Edozein arrazoi aurkitzen dute gu zapaltzeko, judua, ijitoa, homosexuala, elbarritua... izategatik. Ezin dut sinetsi, ez nuke inoiz imajinatu ere egingo pertsona bat gai izan zitekeenik honelako leku bat sortzeko eta, are gutxiago, berarentzat perfektuak ez direnak edo gustuko ez dituenak hiltze-ko.

Bost bat ordu daramatzat Margot-en bila. Bere argazkia erakusten diot jendeari, baina inork ez dakit nor den ez eta non dagoen ere.





Bat-batean emakume bat hurbiltzen zaidala konturatu naiz eta nor den ohartu orduko...

- Andreas! Andreas, zu zara?

- Margot? Margot!

- Andreas, zertan zabilta hemen, zergatik ekarri zaituzte hona? Ene! Andreas!

Zergatik? Zergatik egin digute hau?

- Lasai ez zaitut inoiz gehiago bakarrik utziko, ene Margot!

Aste bat daramagu infernu honetan, ez dugu jatekorik, ez urik, ez ezer, baina Margotekin nago eta hori da garrantzitsuena. Momentu oro jendea hil egiten da gure inguruan, kiratsa ez da inoiz joaten eta erretzeko prest dauden gorputzez beteriko piloak ikus ditzaket bata bestearen gainean, "dutxara" doazen ilara handiak ere bai. Bat-batean txilibitu baten soinua entzuten da:

- Denok zutunik! Denok gora! Azkar! Mugitu! Arin!

Margot eta biok jaiki egin gara, aurrean etzanda dagoen jende asko ez da mugitu ere egin, ez dute indarririk. Ingurua aztertzen ari naizelarik nire izena entzun dut ozenki:

- Andreas Selanderchen! Andreas Selanderchen!

- Bai! Hemen!

- Andreas zertan zabilta? Zer gertatzen da?- dio Margotek izuturik.

- Ezer ere ez, lasai.

- ISILIK! Andreas aurrera! Bundchen Jenerala ezagutzen duzu?

- Bundchen?

- Bai! Petter Bundchen!

- Ez, ez dut ezagutzen.

- GEZURRA! Berak sartu zaitu leku honetara eta probak ditugu, berriro gezurrik esaten baduzu emaztea hilko dugu.

- Ez! Ez! Bai, Petter ezagutzen dut eta hona ekartzera derrigortu nuen. Berak ez du zerikusirik, nire errua da.

- Petter Bundchen aurreratu!



Han agertu da nire aspaldiko laguna. Hala ere, ikusiko dudan azken eguna dela esaten dit barruko zerbaitek. Egoera latza antzeman daiteke.

- Gizon hau hiltzen ez baduzu, nik hilko zaitut eta ondoren zure familia osoa ere bai - agindu diote Petterri nagusiek.

- Andreas sentitzen dut. Bazenekien zein zen tratua, sentitzen dut, parkatu...


PUMMM!

Andreas hil eta astebetera Margot hil zen gaixotasunen eta gosearen ondorioz. Beste milaka gorputzekin egin zuten bezala, begiak itxi bezain laster zapatilak eta zituen arropak desagertu egin zitzaizkion.

Hau, Naziekin gertatu zen istorioetariko bat izan da; baina, Andreas eta Margot bezala milioika pertsona hartu zituzten gauzatzat, gizakiok garen bezalakoak izanda ditugun eskubide guztiak zanpatuz.

Euren oroimenez.





Oihane Unzalu Aldekoa

Irabazlea 17-18 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua



Bizitzaz haraindi

Bide zuzenak asper aspergarriak direlako.

Joseba Sarrionandia

Telebista ikusten ari da Maite orain. Senarra noiz helduko dago. Biok batera afaltzeko; egunero bezala. Pentsatzen dirau orain. 5 urte daramatzate elkarrekin, 5 urte... Igandeetan futbola ikusten du senarrak, tabernan lagunekin. Gauean... gauean sexu gosea sartzen zaio egunero. Eta Maitek batzuetan “buruko mina” izaten du. Besteetan ordea desio bortitz batek harrapatzen du. Eta bere onetik aterata, sexu praktikan aritzen dira. Urteek adierazten duten maisutasunez. Ez dauka zoko idiskoturik Joxeanek Maiterentzat. Eta Maitek berak ere ez jada Joxeanentzat. Eta bere izatearen zati bat, xarma bat, kendu diola pentsatzen du Maitek larru-jotze bakoitzaren ostean. Sekreturik ez daukalako. Isuri du hazia eta Joxean zoriontsu da.

Maitek liburua hartzen du orduan edo portatila bestela, maite du bere ordenagailua, Maiteren ordenagailua delako. Berea bakarrik, bakar-bakarrik. Duen sekretu bakarra delako edo Maite idazten duena hura bera delako agian.

Joxeanek hizkuntza ulertezin batean hitz eginez igarotzen du gaua. Oihu ozenak boteaz.



Maitexoren egunerokoa.

Berriro ere amets berbera izan dut bart. Gauaren erdian oihu ozen batek esnatu nau. Ondoren kolpe ikaragarri bat aditu dut. Beldurtu egin naiz. Begiak itxi ditut eta izarapean ezkutatu naiz. Ondoren negarrak entzun ditut; eta nire gorputza dardaraka nabaritu dut orduan. Amatxo eta aitaxorengana joatekotan izan naiz; baina nire ohe azpian dagoen munstroaz gogoratu naiz. Gauez ohetik jaikitzen banaiz, munstroa haserretu egiten dela esaten dit amak. Eta geldi egon behar dudala. Nik izena jarri diot munstroari; Rodolfo. Rodolfo munstroa; oso ongi geratzen zaio izen hori. Amak ikusi zuen behin Rodolfo eta esaten dit, oso itsusia dela, eta haserretzen denean oso umore txarra duela. Geroztik ez naiz inoiz ohetik jaikitzen, pixagura dudanean ere ez. Ametsean ere ez nintzen jaiki. Beldur pixka bat ere ematen dit-eta Rodolfok. Geldi geratu nintzen ohean.

Guztia baretu zenean, Joakin hartu nuen beso artean. Nire hartza da Joakin. Bularraren kontra estutu nuen eta musu eman ondoren. Loak hartu ninduen itxuraz, zeren begiak irekitzean, jada gaua egun bilakatua zen. Eta izekok gosaltzera deitu nau. Bai, gaur ere goiz atera behar izan omen du amak. Eta izekok eraman behar izan nau eskolara. Asko maite dut nik izeko Ana. Neguko egun hotzetan, txokolatea egiten didalako gosaltzeko. Asko gustatzen zait niri txokolatea eta lagunekin jolastea. Lagunekin jolastea ere asko gustatzen zait.

Ez zait amets hau batere gustatzen. Hain da erreala... hain dira benetakoak garrasiak, hain da benetakoa sentitzen dudan ikara... Amari benetan pasatu izan balitz bezala kontatzen diot beti. "Ba nik edertotxo eiot ba lo! Ametsen bat ixengo zan ume..." esan ohi du berak. Lasaiago gelditzen naiz ni orduan, eta batez ere, lasaiago egiten dut lo.

Bizitza perfektua duela esaten diote Maiteri lagun ezkongai eta bizi-alargunek. "Kejau eingo has ezton? Etxe elegantie dekon. Gixona be ondo heldute, ha ezton iñora juengo ez hi barik! Hi kejetan bahas nik ze ein bijjonat ba Maite!" esaten diote beti. Baina hala ere, Maitek zerbait falta balitzaion bizi ditu azken egunok. Hutsik bezala sentitzen da. Zahar sentitzen da. Eta bakarrik, batez ere bakarrik. Jada ezerk ez du betetzen. Eta egunez egun denbora gehiago ematen du munduak asmatzen. Gauetan oroitzen zaren joaten da bizitzera. Egunez egun denbora gutxiago ematen du errealtatean; bere etxe perfektuan, bere lan perfektuan, bere gizon perfektuarekin... Finean, bere bizitza perfektu horretan.



Eta gainera tripako min hauek ez dira normalak. “ Hi! Ez has gero umedun egongo ezton?” esan dio Karmelek. Eta orain gogoratu du aspaldi ez dituela tinta gorritz jantzi kuleroak... Korrika joan da etxera. Hilerokoaren egutegian begiratzera. Aste bi! Gehienetan lau egunetara egin ohi dio bisita... medikuarenera joan behar du.

Ohean etzan da, eta gaur gauean buruko mina izan du. Joxean haserretu egin da horregatik. Ez dizkio bere hardurak, beldurrak, adierazi. Bere sentimenduak inoiz azaldu ez dizkion eran. Liburua hartu du, besterik ez.

Maitetxoren egunerokoa.

Gaur Alaznerekin haserretu naiz eskolan. Margo gorria eskuetatik kendu dit. Eta jada bere laguna izan nahi ez dudala esan diot. Pixka bat harroputza da Alazne, baina nire lagunik hobereana da eta barkatu egin behar izan diot “Parkatzen...?” esan didanean.

Ama gero eta baldarrago dabil. Aste honetan bigarren aldiz jausi da lanean. Eta oraingoan benda kendu eta igeltsua jarri diote eskuan. Oso polita da! Marrazki polit bat egin diot. Hirurok agertzen garena. Aitaxo, amatxo eta ni. Nik ere igeltsua jarri diezadaten nahi dut! Polita da eskuan marrazkiak egitea. Nik askotan egiten ditut marrazkiak eskuetan; horrela beti nirekin eramaten ditudalako. Baina aitaxok zerrikeria dela esaten dit eta garbitzeko. Asko gustatzen zait amaren igeltsua.

Lotara noa. Bihar ere eskolara joan behar dut eta.

Gabon Rodolfo!

Sendagilearenean dago Maite. Hain ezezagunak egiten zaizkio horma horiek, aulki horiek... beldurra ere ematen diote. Iseka egiten diotela begitanduko zaio. Bere sekretu ororen jabe balira bezala izango da. Eta haserretu egingo da aulki berde eta horma zuriekin, ez dutelako bakean uzten. Orduan irribarre amini bat ere aterako zaio, aulki huts eta horma bakartiekin hitz egiten ari zelaz jabetu delako. Irribarre... ez du gogoratzan azken aldiz noiz egin zuen. Irribarreak gutxi iraun dio ordea. Sendagileareneko atea bortizki zabaldu denean, non dagoen eta nora doan gomutatu duelako.

“Maite Onagoitia!” egin du oihu ez andrea ez gizona den batek. Gorritu egin da Maite orduan, begirada guztiak beregan zeudelako. Eta korrika ihes egiteko gogoia piztu zaio barren-barrenean. Baina kontsultara sartu da azkar. Tentazioari aurre egin ahal izateko.

Maiteren ordenagailua.

Inoiz ikusi ez dudana, inoiz sentitu ez dudana etorri zait parera orain. Sentimendu hauek ez ditut ezagutzen. Ezezaguna zaidana daukat momentuotan aurrez aurre. Eta espektro horri, munstro horri so nagoelarik eskuak sakeletan barneratu ditut bortitz ene urduritasunaren isla garbia agerian utziz. Eta momentuotan parean dudana ikustean jarritako aurpegikera etorri zait gogora eta inoiz baino primitiboagoa begitandu zait neure burua. Primitiboa diot, egoera honetan nire sentipenak gidatzeko ahalmena galdutzat jotzen hasia naizelako. Nire gogoeta sakon honetan murgildurik nagoela, nor zaren, zer zaren, nola zaren... pentsatzen, bat-batean eskuak busti sentitzen ditut gorputzaren berotasun eta poltsikoetako oihal jada umelduen artean. Eta oraindik ere zer zarenaren ezjakintasuna erabatekoa dudan arren, bihotz taupadak bikoiztu egin dizkit zure presentziak; erlojuaren orratzek markaturiko erritmoa galdurik, independenteki dirau orain bihotzak. Ahots kordak dantzan darabilzkit hitz bakar bat ere ahoskatu ez dudan arren.

Pentsatuz jardun naiz luzaro, izan ere arrotz zaiguna dugu amets, arrotz zaiguna dugu etsai. Arrotz dira gure existentziaren hasiera eta amaiera ere. Eta hala ere ezezagunak beldurra ematen digu. Hauxe da bizitzaren paradoxa: hain gorroto dugun, hain erraz salduko genukeen egunerokotasunean soilik sentitzen gara seguru, ausart.

Inongo lekuetan gaude, inongo lekuetan gara. Dena da arrotz, dena ezezagun, inongo tokietan, inoizko denboran dirauen munduan. Ezezagunik handiena geure burua den munduan.

“Zorionak Maite! Haurdu zaude!” Esan dio medikuak Maiteri, erabat prefabrikatua irudituko zaion euskara ia arrotz horretan. Negar malko bat irten zaio bat-batean, espero gabe, ekidin ezinik. Medikuak harridura aurpegiz egin dio so. “Emozioñuegaittik da gixona!”, lasaitu du, egunero gezurretan aritzen denaren trebetasunez. Kontsultatik irtetean, beltzak iruditu zaizkio horma eta aulkia ere. Eta gizon-emakumeak hatz erakusleaz seinalatzen duela irudituko zaio. Eta mina sentituko du bat-batean. Jada bera ez dela irudituko zaio. Igual bera izatea nahi ez duelako orain. Eta zer izan nahi duen galdetuko dio bere buruari. Baina ez du erantzuten jakingo. Eta tristatu egingo da orduan. Eta inoiz baino bakartiago sentituko da. Bizitzaren helmuga ikusiko balu bezala izango da. Oroitzapenak min emango diote orain, zoriontasun hura inoiz berreskuratuko ez duela pentsatuko duelako.

Beste era batean dakusa orain mundua. Kaleak ilunagoak dira. Eta hotza latzagoa. Aterki beltzek zeru urdina eta eguzkia estaliko balute bezala izango da. Aterkia kendu du, zerua ikuskatzeko. Ez. Zerua ere beltz ageri da. Mina. Oroitzapenak. Beste malko bat.

Maiteren ordenagailua.

Joxeanengana joan behar dut. Eta kontatu egin behar diot. Bizi bat daramadala nire barrenean. Haserretu egingen da seguruenik. Nik badakit hori. Baina bizi hori, ez da nirea bakarrik. Berea ere bada; eta esan egin behar diot.

Ez dakit nola esango diodan... “Joxean laztana, haur bat izan behar duzu...” Ez, horrela ez! “Joxean, hitz egin behar dugu. Haurdu nago. Sentitzen dut.” Ez horrela ere ez; sentitzen dut hori... Badakit, besaulkian eseriko dut eta... “Joxean. Berri bat daukat. Haurdu nago. Umea, noski, zurea da. Nik aurrera egin nahi dut. Zer iruditzen zaizu?” Joder! Haserretu egingo da. Seguru nago.

Ihes egin nahi du. Joan egin nahi du, urrun. Bere ametsetako mundu horretarat agian. Edo bere ipuinetako munduetara igual. Bai bere ipuinetako munduak ditu maitteen. Bere munduak direlako haiek. Maite bera da jaun eta jabe. Berarentzat eginak diren





munduak direlako. Hemen, mundu honetan, errealitatea deritzon mundu honetan, enkatzen ez duela iruditzen zaio. Ez dela bere mundua. Gauero eraikitzen ditu munduak Maitek. Eguzkiak izpi ederrak jaurtitzen ditueneko munduak eraikitzen ditu. Eta zero koloretu eta ederrak abarora ematen dioteneko munduak. Haizea epel eta maitekorra deneko munduak sortzen ditu. Zelaiek, existitu ere egiten ez den berdea duten munduak. Itsaso baredun munduak. Perfektuak diren munduak. Zoriontsu izateko munduak.

Sarritan joaten da mundu haietara bizitzera. Baina egunero-egunero begiak irekitzen ditu bat-batean; iratzargailuaren zarata monotono eta ozenak ametsetako gordelekuetatik bortizki ateratzen duen unean. Bere ametsetako azken pasarteaz gogoetan aritzen da oraindik. Erdi lo, erdi esna dagoen momentuetan. Leihoa irekitzen du, eta begiak zabaltzeko bigarren ahalegin batez, izateari ateak ireki berri dizkion egun goibela dakusa tristuraz. Goizeko haize hotzak masailak ebakitzen dizkion artean, ganibet bat bailitzan. Eta bere buruari galde egiten dio ea zein unetan hasi den egun hau existitzen, edo ea zein unetan hasi den Maite bera existitzen. Orain ordu erdi, ametsen mundu horretan, mundu hau ez zela existitzen otu zaio. Eta patetikoak badirudi ere, orain ordu erdi, eguzkiak gogorki jotzen zuen beste mundu batean zoriontsu zen beste Maite hura zela iruditzen zaio. Eta nahiago izango du Maite hura izan.

Hori pentsatzean sabela igurtzi du. Eta malko bat atera zaio. Malko hori, kanpoko euri tanta dela imajinatu du; hodeien negarra dela, ez berea.

Tantaka-tantaka, malko bakoitzean, bere izatearen zatitxo batek ihes egiten diola pentsatuko du. Horrela, desegiten ari dela sentitzen du.

Maitetxoren egunerokoa.

Amama gaixorik dagoela esan dit amak. Eta zaintzera joan dela. Izeba etorri da nitaz arduratzerara eta gurekin, aita eta biokin, geratuko omen da. Izebak ez du gogoko aita-txo. Ez dute elkarrekin inoiz hitz egiten. Errietan egiteko eta lekuz kanpoko oihuren bat egiteko ez bada. Eta ez dut ulertzen zergatik. Nik biak maite ditut, eta hori esaten diedanean ezinezko gauza balitz legez begiratzen naute. Eta biak haserretzen dira nirekin. Izekok sarri errepikatzen dio gauza berbera: "Cualquier día te denuncio cabrón! Lo vas a pagar caro!". Baina nik ez dut ezer ulertzen. Azaltzeko eskatu nion behin izekori eta osti-



koka nire gelara bota ninduen. Geroztik ez dut berriro ezer galdetu.

Eskolan Iker izeneko mutil bat dago. Denetatik politena da. Denoi gustatzen zaigu Iker. Dena ondo egiten du. Aaai! Hain da zoragarria! Andereñoak bere ondoan jarri nau!!! Gelakide guztiak inbidiatan dauzkat. Zoriontsu naiz.

Joxean mahaian dago jesarrita. Beregana urreratu da Maite. Urduri dago, atzarra etengabean ile artean darabil. Aurrez aurre eseri zaio eta begietara begiratu dio begirada finko batez. Eta une horretan gizon hori ezer baino arrotzagoa irudituko zaio, beldurra emango dion mugararte. Horixe pentsatzen aritu delarik bat-batean, “Zer???” ozen batek murgildurik zegoeneko mundutik atera duen arte. “Joxean, hitz egin behar dugu...”

Maitexoren egunerokoa.

Amarekin jostatu naiz gaur ere. Amari asko gustatzen zaio medikuetara jolastea. Batez ere neguko arratsalde hotzetan. Ohean sartzen da bera eta nik medikuarena egiten dut. Batzuetan sukarra izaten du amak. Besteetan bizkarreko mina izaten du eta nik masajeak ematen dizkiot. Beti esaten diot. Oso antzezle ona da ama.

Amari eguzkia ez zaiola asko gustatzen iruditzen zait. Oso gutxitan etortzen da gurekin hondartzara. Eta ez datorrenean faltan botatzen dut nik. Etortzen denean ordea, ez du bainu-jantzirik jartzen. Ez du inoiz arroparik eranzten. Eta beti betaurrekoak jantzi-ta eramaten ditu. Nire lehengusinek albinoa dela esaten dute. Baina nik ez dakit hori zer den.

Medikuetara jolastea eta bere eguzkitako betaurrekoak ditu gustukoekin amak, eguzki printzarik aminienekin ere beti gainean eramaten dituelako.

Irakurtzea maite du amak, eta idaztea ere bai. Niri asko gustatzen zaizkit amaren ipuinak. Fantastikoak direlako. Amaren istorioetan ez dago Rodolfo bezalako muntztorrik. Eta horregatik gustatzen zaizkit ipuin haiek.

“Joxean, haurdun nau.” “Lasai laztana, neronek lagunduko zaitut abortetan eta...” eta segundo bakar batean, mila gauza irakurri ditu Joxeanek Maiteren begietan. “Ze abortetie gurozu, ezta?”. Eta isiltasuna. “Eh? Ezta?”. Isiltasuna. Berriro ere aurpegira egin dio so eta neskaren begirada tinko eutsi du Joxeanek bere begi urdin handi horiekin. Eta

Maiteri inoiz baino ederragoak iruditu zaizkio begi horiek. Oraingoan Joxeanek maletak eta diosala bera ere irakurri ditu Maiteren begietan, eta negar egin du.

Maiteren ordenagailua.

Asko gustatzen zait gauez irakurtzea. Horrek bete egiten nau. Oroit ditut bai, amaren ipuinak. Mundu ezberdinez idazten zuen amak beti. Eta niri iruditzen zitzaidan beste mundu batean-edo bizi zela ama. Ipuin haiek nire amaren errealitatea ziren. Maiteren koaderno eta liburua nire errealitatea den bezala. Nire liburua delako izango diot hain estimu handia agian. Edo txikitako egunerokoa delako igual. Maitetxoren egunerokoa delako.

Harriduraz irakurtzen dut, nola kaligrafia eskas eta letra okerreaz deskribatzen nuen mundua. Nola deskribatzen nuen nire mundua, zein errealitatek at, haraindi baitzegoen. Nola ametsa bailitzan kontatu nituen gaueko oihu ikaragarri haiek, aita horditurik heltzen zenetan. Eta nola Rodolfori eskerrak ez nituen inoiz ikusi, amari erauziriko odol tantek ezkaratzeko baldosa zurietan eratzen zituzten irudi melankoliko eta ia agoniko haiek.

Inozentziaz beteriko ele, hitz eta mundu hura, mundu inperfektu hura batez ere maite dut, errealitatea baino gehiago, nik eraikitako mundu perfektuak baino are gehiago.

Maletak egin ditu. Joan egingo da. Urteetan zehar eraikiz aritu den etxe hura, lan hura, gizon hura, mundu hura... atzean utziko ditu denak. Atetik ateratzean hego bi hazi balitzaizkio lez sentituko da. Eta ez du behin ere atzera begiratuko. Orain Maitetxo delako. Etxe handia utziko du eta bi gelako etxe batean biziko da agian. Eta hilabete batzuk beranduago hamar kilo gehiago nabarituko ditu gainean. Etxe txiki horretan, pauso bakoitzean zoruko egurrak min oihu ozenak jaurtiko ditu igual. Eta hormetan arrakalak egongo dira. Bakarrik biziko da. Eta ez du afaltzeko itxaron beharrik izango. Eta gauetan ez du inoiz buruko minik izango. Bere bakardadean ez da bakarrik sentituko. Eta arraroa begitanduko zaio hori. Eta zeruak mila kolore izanen ditu. Eta batzuetan euria egingen du. Berak eraikitako ipuin perfektuetan ez bezala. Bere lekua kausitu du munduan. Eta erabaki du horrela, horma zikin eta arrakalatsu artean, mundu inperfektu horretan, zoriontsu dela.



Maiteren ordenagailua.

Sarritan iruditzen zait kartzela dela bizitza. Idazten dudanean, lanean behar nuke. Lagunekin nagoenean, idazten behar nuke. Bai, etxe handi hura bezala da bizitza; leihoez bestalde askatasuna ikus dezakedalako. Eta nik ezin izaten dut ene begirada leihoetatik aldendu, eta ezin izaten dut askatasuna eskuratu, kanpoan dagoelako. Edo Kanten adingabetasuna izango da nire bizitza agian. Adingabetasun horretan bertan, askatasuna bilatzen saiatzen naizelako. Baina adingabetasunean ezin aurki dezaket askatasunik.

Platonen kobazuloa izango da nire bizitza igual. Itzalei begira egoten naizelako; eta eskuaz hartzeko ahaleginetan, hutsa baino harrapatzen ez dudalako. Klaro, itzalak dira, itzalak...

Itzalak asko gustatzen zaizkit. Itzala izatea gustatuko litzaidake niri ere. Eskuraezina nintzatekeelako horrela. Itzalak gustatzen zaizkit, baina ez haizea beste, haizea itzalak baino are gehiago gustatzen zait. Erabat aske delako. Eta mendi gailurrak fereka ditzakeelako. Zortzi milako mendiak ferekatuko ditu haizeak igual. Edo zuhaitzen hostoak laztanduko ditu. Edo itsasoarekin jostatuko da. Olatuak eratzerrainoko dibertimenduz.

Ordenagailu aurrean eseri naiz. Haizea izan nahi dut. Burua eta bihotza zabalzabal eginik, idazten hasi naiz. Askok gustatzen zait niri idaztea. Haizea bilakatzen naize-



lako idazten dudanean. Neu naiz jaun eta jabe. Eta mundu bat eraikitzen dut. Emakumeak Kanten gizaki erdisufizienteak ez direneko mundua. San Agustinen Jainkoa, egia ez deneko mundua. Mundu hobea. Ez! Gehiago: perfektzioaren mundua. Nire mundua.

Idazten dudanean, mundu horretan, etxe handiko hormak desagertu egiten dira. Kobazulora argia sartzen da eta ez dit begietan minik egiten, eta gustuko izango dut argia. Kobazulora sartzen den argiak, adingabetasunetik aterako nau. Eta kobazuloa utzi eta haran misteriotsu eta inexistenteak bisitatuko ditut. Maite zaitut esateko hitz espezifikokoak egongo dira han. Egia misteriotsuak liburutegietako liburu astunenen orrialdeetan egongo dira. Eta horrela, nor garen, zer garen, zer izango garen... jakingo dugu liburuak begiratze soilez. Jada ez diogu galdera paranoikorik egingo geure buruari. Erantzun ororen jabe izango garelako. Ez du euririk egingo. Eta zerua beti ederra izanen da han. Urdin-urdina; askatasuna bezala. Ez dakit zergatik baina beti pentsatu izan dut, askatasunak kolore bat izatekotan urdina izango litzatekeela. Lau petaloko hirustak aurkituko ditut han nonahi. Eta arrosa gorri ederrak. Arrosa gorri pila bat.

Askotan saiatu naiz perfektzio hori bilatzen nire ipuinetan. Eta konturatu naiz, zoriontasuna perfektzioan bilatzea oker handia dela. Gizakia izaki inperfektoa delako berez, naturaz. Eta ezin zaiola inolaz naturari aurre egin. Natura gu baino indartsuago delako, nahi duenean.

Gizakia izaki inperfektua da, hiru petalodun hirustak bezala. Eta arrosa gorrien ondoan hazten diren margarita ttipi horiek bezala.

Baina niri asko gustatzen zaizkit hiru petalodun hirustak eta baita udaberrian zelaien orlegi biluzia janzten dute margaritatxoak ere. Margaritak gustatzen zaizkit. Amak lepoko luze eta ederrak egiten zizkidalako arrosen ondoan zeuden margaritekin. Hirustak... Txikia nintzela aititak ile artean jartzen zizkidan hirustak. Behin, nik ere gauza berdina egin nahi izan nion eta hirusta polit bat aukeratu nuen, hiru beso ikaragarri zituen. Berak orduan, lau petalodun batekin egin zuen topo eta petalo bat kendu ondoren, nire ileen artean kateatu zuen. Orduan arazo bat izan nuen nik. Belarri ostean jarri behar izan nion hirusta, ilerik ez zeukalako. Gero hil egin zen aitita eta geroztik hiru petalodun hirusta gustatzen zaizkit, lau petalodunak baino gehiago.




Orain zoko misteriotsu ugariko mundu batez idazten dut beti. Margaritak eta arrosak nahasten diren mundu batez. Batzuetan, euria egiten du nire munduetan. Eta horrela, eguzkia egiten duenean, gehiago preziatzen dut. Batzuetan, negar egiteko gogoa izaten dut. Horrela, irribarre egin nahi dudanean, benetakoagoa izango delako, eta zoriontsuago izango naizelako. Zeruak mila kolore izan ditzakeen mundu batez idazten dut orain. Batzuetan beltza izanen da zerua, haserre dagoelako. Edo urdina izanen da, pozik dagoelako. Beste batzuetan, gorria izanen da, zoriontsu delako.

Gizakia hiru petalodun hirustak eta arrosen ondoan hazten diren margaritak bezalakoa da. Eta inperfektuak dira mundua eta bizitza ere.

Eta horregatik, gizaki inperfektua mundu inperfektuan soilik izan daiteke zoriontsu. Kontua da, gizaki bakoitzak bere mundu inperfektua eraiki behar duela, arrosetatik urrun jaiotzen diren margaritak bezala. Nik bezala.

Asko gustatzen zait niri idaztea. Munduak eraikitzea. Bizitza asmatzea. Idaztean, haizea naizelako.



Itxaso del Olmo Lopez

Akzesita 17-18 urteko sailean
San Jose-Jesuitak Ikastetxea



Ostadarraren argia

Sutondoan esertzen naizen bakoitzean aitonaren oroitzapena datorkit burura. Berotasun haren alboan eserita kontatzen zizkidan hamaika histori, hainbat gertaera eta beste hainbeste kontu zahar. Berak zioenez, antzina gertatutako kontuak ziren, baserrietako jendea iluntzearekin batera oheratu eta eguneko lehen eguzki izpien argitasunpean lanean hasten zirenekoak.

Udaberri asko igaro dira aitonaren izterretan esertzen nintzenetik eta gaur egunera, gehiegi agian. Nire bizitzako azken urteotan etortzen zaizkit kontu zahar guztiak berriz burura, aitonaren hitz goxoak suaren inguruan dantzan ikusten ditudanean, mutiko gaztetxo bat nintzeneko garaietan moduan. Jendeak dio mundu hontan egoten jarraitzeko egunak bukatzeaz dituzunean agertzen direla zure bizitzako oroitzapenik politenak. Nik, behintzat, ziurtatu dezaket hitz horietan gezurrik ez dela ageri.

Udako gau argi batean kontaktu zidan ipuina da beste edozein baino hobeto gogoratzen dudana, barne barneraino heldu zitzaidan istorioa. Gau izartsua zen, inoiz berriro ikusi ez dudana bezalakoa. Zeru iluna txinparta distiratsuz josita zegoen eta argi txikitxo horien guztien artean ilargi amandrea ageri zen, oso osorik dena argiztatu nahian. Etxe aurreko zelaian zegoen lasto multzo baten etzan ginen aitona eta biok zerura begira. Ni erne nengoen hitz batzuen zain, nire irudimena aske utzi eta ipuinean murgiltzeko irrikitan...

Mila lorez apaindutako etxe batetan bizi zen Katalin izeneko neskato bat, bere guraso eta anaiekin batera. Udaberrietako aire goxo eta familiako maitasun guztiaren artean hazi zen gure Katalin, lorerik ederrena baino ederrago bihurtu zen arte. Ez zegoen inguruan mutilik bere begietara begiratzean txundituta geratzen ez zenik.

Eta horrela heldu zen neskatoaren gurasoak etorkizunari begira hasi ziren eguna. Alaba gizon batekin ezkontzea pentsatu zuten bizi on eta zoriontsu bat izan zezan. Mutil egozia aukeratuz gero, neskatxak ez zuen inoiz diru eta lur faltarik izango, eta horrela, familia eder



bat sortu ahal izango zuen. Hori zen, zoritxarrez, antzinako garai haietan gurasoek nahi zutena beraien alabentzat.

Ez zen asko berandutu lehenengo mutila neskatoaren etxeko atea jotzen. Inguruko lur askoren jabearen seme nagusia zen eta oraindik ezkongai zegoen. Katalin etxetik irten zenean mutila zeharo txundituta geratu zen haren edertasuna ikustean, eta birritan pentsatu gabe zera esan zuen:

- Neska hori nirea izan behar da lehenbailehen.

Harrotasun hori jasanezina zen Katalinentzat, berak ez zuen nahi horrelako inor senartzat eduki.

Egunak igaro ahala, hainbat mutil gazte pasatu ziren neskatoaren etxetik baina denek zuten harrokeria kutsua begietan, eta honek ez zekien zer egin. Alde batetik, bere familia pozik egotea nahi zuen alaba gizon batekin ezkondata ikustean. Baina bestaldetik, benetan maiteko zuen mutilak bere etxeko atea inoiz ez zuela joko iruditzen zitzaion, eta garai haietan adin batetik aurrera garrantzitsuena emazte bihurtzea zen.

Horrela igaro ziren egunak, asteak eta hilabeteak, laino ilun batek Katalinen bihota estali zuen arte. Neskatoa gaixotu egin zen, gero eta ahulago zegoen eta bere begiak distirarik gabe geratu ziren. Denek uste zuten hori ez zela arraroa, hark zuen erantzukizuna ez zen txantxetarakoa. Baina denbora pasa ahala, Katalinek jateari utzi zion eta ez zen etxetik ateratzen, ezta loreak ureztatzeko ere. Orduan konturatu ziren bere gurasoak zoritxarra heldu zela bere alabarengana. Mota guztietako belar botikak eman zizkioten osatu zedin, baina alferrik izan zen.

Azkenean, Katalinen anaiek beraiekin mendira joateko esan zioten, egun hartan ardiak eraman behar baitzituzten larre batetik bestera. Mendiko haize freskoak onura egingo zion itxaropenarekin, neskatoa anaiekin batera abiatu zen zelai orlegi erraldoietarantz.

Egun horretan ezagutu zuen Katalinek bere anaien lagun handia zen Ibai izeneko artzain gazte bat. Larre aldaketak egiten zituztenean elkartzen ziren mendiko txabola txiki batean, gazta eta ogia elkar banatzen zuten bitartean. Mutiko pobrea zela zioten, bere senide bakarra zen aitona hil zenetik bakarrik bizi zen mendiaren beste aldeko etxola batetan. Artzainak batzen zirenean, egun aspergarriei bizia ematen zieten humore pittin batekin, ijiak eta algarak nonahi entzuten zirelarik, edozein gaztek egingo lukeen bezala.



Pago erraldoi eta hostotsu baten azpian zegoen Katalin bere anaiek ardiak zaintzen zituzten bitartean. Oin pausoak entzun zituenean begirada alde batera eraman eta mutikoa ikusi zuen lurreko orbel eta sustraian artetik oinez zetorrela. Ibaik jarraian ezagutu zuen neskatxa, bere lagunek hainbat gauza kontatzen zizkieten arrebari buruz. Entzuna zuen polita eta liraina zela, baina ikusi eta batera konturatu zen ez zegoela hitz nahiko neskatoaren edertasuna deskribatzeko, Ibai zeharo txundituta geratu zen zuhaitzaren azpian zegoen harekin. Ez zekien zer egin, zer esan... bere aitonaren hitz batzuekin gogoratu zen momentu hartan:

- Bazenekien pago erraldoi honek hitz egiten duela? -galdetu zion mutikoak.
-Zuhaitz hau beti egon da hemen, inork ez daki zenbat urte dituen. Jainkoek landatu zutela diote orain dela milaka urte.

- Zu Ibai zara, ez? -Katalinek aurpegi arraro batekin hitz egin zion. -Anaiak asko hitz egin didate zuri buruz, baina ez nekien hain gezurtia zinenik. Zuhaitzek noiztik hitz egiten dute?. Nik dakidala ez dute txintik ere esaten.

- Baina honek bai, mendi honetako artzain guztiok dakigu pago hau berezia dela. Niri aitonak esan zidan, eta aitonak ez zuen gezurrik esaten.

- Ondo da, erakutsi iezadazu ez zabiltzala gezurretan.

Orduan, Ibaik enborra laztandu eta masaila zuhaitzaren azalarekin bat jarri zuen, hitz batzuen zain.

- "Zoritzarrekoak zuen jainkoak asetzeko zuen nortasunari uko egitea eskatzen badizuete. Inork ez du eskubiderik bizitzako atea jotzeko benetako maitasunaren beroa esku tartean izan gabe. Katalinek ostadarraren argia ukituz gero bakarrik etorriko da argia bere begietara".

Katalin, guztiz harrিতa, oihukatzen hasi zen.

- Egia da, hitz egin du!!! . -baina pago zaharrak esan zuena ez zen berri on bat izan berarentzat. Ostadarraren argia... ezinezkoa da argi hori esku tartean izatea, beraz, ezinezkoa da maite dudan mutil bat aurkitzea. Benetako zoritxarra nirea eta nire familiari eman diodana!.

Hitz horiek entzutean Ibai bere alboan belaunikatu zen, ezin baitzuen jasan neskatoa horren triste eta goibel ikustea. Lorerik ederrena eguzki argi gabe geratzen den moduan zegoen Katalin, bere begiak malko ilunez betetzen ziren bitartean.

- Nik ekarriko dizut ostadarra. Zeruko jainko guztien aurka borrokatu behar badut ere, argirik politena lortuko dut zure aurpegira irribarre handi bat bueltatu dadin.

- Ez Ibai, ez zaitetz jarri jainko ahaltzuen aurka niri irribarre bueltatzearren. Kalte nahiko egin diot nire familiari eta ez dut nahi inor gehiago mindu.

Horrela agurtu zen neskatoa, buru makur eta ahots goibel batekin. Malkoak eskuekin kendu eta bere anaiengana abiatu zen etxera buelta egiteko asmoarekin. Ibai, berriz, pago zaharraren azpian geratu zen neskato ederraren tristura burutik ezin kenduta. Nola lortuko zuen ostadar argia Katalinengana eramatea?

Zuhaitzak hori esan bazuen pisuzko arrazoi batengatik izango zen.


Bat-batean, zerua hodei ilun eta potoloz estali zen eta trumoi hotsak entzuten hasi ziren mendiaren beste aldetik. Ibaik bere ardi guztiak bildu eta zuhaitzaren azpira eramaten zituen bitartean euri tantak erortzen hasi ziren, gero eta gehiago. Tximistek mehatxuzko keinuak egiten zituzten, ekaitza gainean zegoen. Mutikoa, beldurtuta, ardi guztien artean jarri eta artilezko jertse batekin estali zen, ekaitzaren barealdiari itxaroten. Hainbat pentsamendu zeuden bere buruan biraka: Katalin, bere edertasuna, haren begi goibelak... sabelean kili-kili bat sentitzen zuen, milaka tximeleta hegaz izango balitu bezala. Inoiz aitonak hitz egin zion sentimendu horri buruz, maiteminduen “gaixotasun atsegin eta goxoa” zela zioen. Orduan ulertu zuen Ibaik zer esan nahi zuen aitonak maiteminduei buruz hitz egiten zuenean.

Pixkanaka-pixkanaka, euri tantak gero eta gutxiago ziren eta ez zen trumoi hotsik entzuten. Hodei ilunak mendiaren beste alderako bidaia jarraitzen zuten bitartean, zeruan hutsune urdin argiak agertzen hasi ziren. Eguzkiak kuku bat egiteko aukera izan zuen momentuan ostadar erraldoi bat agertu zen, haraneko alde bat bestearekin lotzen zuen zazpi koloreko zubia.

Birritan pentsatu gabe, Ibai arineketan hasi zen mendian gora. Zelai erraldoitik abiatuz, baso sakona zeharkatu eta harrietatik gora igo zen ostadarraren oinera heldu zen arte. Bertan poltsa ireki zuen kolore pixka bat sartzen uzteko asmoz. Ondoren, soka batekin lotu eta herrirantz abiatu zen lehen eroritako tximistak baino arinago. Ardiak ere bere atzetik zihoazen, mantu zuri bat bera harrapatu nahian joango balitz bezala.

Gutxi falta zitzaion Katalini etxera heltzeko ardien txintxirrinak eta Ibairen oihuak entzun zituenean:





- Katalin! Ostadar argia lortu dut zuretzako!

Mutikoa arnasestuka urreratu eta lurrean belaunikatu zen poltsari soka kentzen zion bitartean.


- Hemen dago zuk behar duzun botika irribarrea zure aurpegira bueltatzeko.

Katalin bere aurrean eseri zen, ez zuen ezer ulertzen. Mutikoak poltsa ireki zuenean hutsune handi bat baino ez zegoen han barruan; eskuak sartu zituen zerbait aurkitzeko asmoz, baina alferrik. Ostadarra desagertu egjin zen. Eskuekin aurpegia estali eta burua makurtu zuen. Artzain gazteari zerua erori zitzaion gainera, zer pentsatuko zuen orain Katalinek? Neskatoari zuzendu zion begirada, malko erraldoiak bere begietatik ateratzen ziren bitartean.

Orduan konturatu zen Katalin lbairen masailetatik behera irristatzen ziren negar tanta haiek benetako maitasunaren seinale zirela, eta laztan goxo batekin malko bat hartu zion.

- Ez al da hau bilatzen ari zinena? –esan zion negar tanta bere atzamarretik behera zihoala.

Egunaren azken argiak zelaietan zehar ikusten ziren bitartean, eguzki izpi batek Katalinek eskuan zuen malkoa zeharkatu eta ostadarraren zazpi koloreak marraztu zituen ur tantatxo hartan.



Aritz Arrizabalaga Petralanda

Irabazlea18 urtetik gorakoen sailean



Ijitoa

Amesgaiztotik izerdi patsetan eta arnasestuka esnatu zen Puskas. Bihotzak tau-pada bizkorrak ematen zizkion, eskuek dardara beldurti bat zeukaten eta buruak ezin zuen lasaitzeko agindurik eman, ametsetatik bueltan oraindik ametsean zerbait utzi bazuen bezala esnatu zen. Maindirea izerdiarekin bustita zegoen, jantzita zeuzkan kantontziloak bezala. Oraindik urduri, ohe ertzean eseri zen. Ukondoak belaunen gainean jarri zituen, burua eskuen gainean jartzeko. Nekatuta zegoen. Egunak ziren goizaldean esnatzen zela amesgaizto haren erruagatik, urteak. Giharrak gogortuta zeuzkan. Min handia sentitzen zuen gorputz guztian zehar, batez ere bizkar aldean. Burua altxatu zuen ze ordu zen jakiteko: ordu biak. Ez zuen logelako erloju zaharraren informazioa gogo onez hartu. Bazekien amesgaizto hartatik esnatzen zenean ezin zuela gehiago lorik hartu. Etxean ibiltzeko erabiltzen zuen jertse zahar bat gainetik bota, kantontzilo zikinak kendu, praka zahar batzuk jarri eta leihora hurbildu zen.

Logelako leihotik herriko sarrera ikus zitekeen. Ilargi beteak nahiko argitasun ematen zuen herriari begira jartzeko. Aurreko egunetan elurra sortu zuten hodeiak alde egin zuten. Belardietako zurtasunari erreparatu zion Puskasek; hain zuria, hain garbia, azukrea zirudien. Elurte handiak izan ziren azken egun haietakoak, eta bide gehienetan elurra ikus zitekeen. Herrira sartzeko bidea ere hala zegoen. Zaila zen herrira iristea. Nahiko apartatuta zegoen. Bertara heltzeko hiriko *errepide nagusia hartu behar zen, eta, Pagoa ostatuko bidegurutzea iragan ondoren, mendi aldera jo zenbakirik ere ez zuen bide estu batetik. Berehala,*



*gaztainadi bat zeharkatzean, baserriak ikusten ziren lerroan, erreka ziztor baten erara koka-tuak, eta artasoroak, sagastiak, belazeak haien jira guztian, eta gero berriro ere mendiak, basoak, milaka zuhaitz malda guztietan gora.*¹ Beste mundu bat zen.

Bere herriari begira, Puskasek bazekien goizerarte egon beharko zuela han; neka-tuta, lo egin ezinik eta pentsamendu zaharrak ahaztu nahian. Horregatik sukaldera joan eta kafea prestatu zuen txapa zaharrean berotuta. Berriro bueltan, leihotik begira, bere ames-gaiztoaz madarikatu zen. Ez zin aurre egin eta pixkanaka-pixkanaka itzaltzen ari zela sen-titzen zuen. Ez zeukan inor inguruan arazo horretan laguntzeko; semeak hirira joan zitzaiz-kion aspaldi lanera eta bere Kattalin maitea zazpi urte lehenago eraman zuen gaixotasun batek. “Zenbat urte daramatzat lo ondo egin gabe ? hamar, hamabost” galdetzen zion bere buruari. Gogorra zen iluntasuna bakardadean. Gogorra zen gaua Puskasentzat.

Eguerdiaren bazkari xume bat egin zuen Puskasek arrautza pare batekin eta solo-mo apur batekin. Emaztea hil ezkeroztik bazkariak asko mugatu ziren. Bazkaldu ostean ohean etzanda lo hartu zuen ordu erdian argazki zaharrak ikusten ari zela. Goizaldea eta goiz guztia eman zuen argazki haiek ikusten. Ordu erdi beranduago, esnatu zenean garai bateko apaizaren argazkia zuen eskuetan. Ohetik altxatu zenean erloju zaharrari begiratu zion, hiru ordu laurden geratzen zitzaizkion lagunekin izaten zuen hitzordura heltzeko. Arropa garbiak jantzi, leihotik azken begirada bota eta etxetik irten zen.

Puskas baserri zahar batean bizi zen, baina ez zeukan animaliarik, ortu txiki bat baino ez. Plazatik nahiko urrun zeukan baserria, kilometro erdi batera. Baserriko atetik irte-tean ohartu zen aurreko egunetako tenperatura ez zela asko jaitsi, nahiz eta eguzkia agertu zen aspaldiko partez. Su eten bat zen. Atsedenaldi bat. Beroki lodi bat elur artean. Pauso geldoz eta elur gutxien zegoen lekuetatik plazarantz bideratu zen Puskas. Urteak ez ziren alferrik pasatu, baina oraindik plazarako bidea egiteko gai zen.

Ordu erdian plazara heldu zen. Guztiz zurituta zegoen plaza: eserlekuak, lurra, plaza erdiko gereziandoa... Zuritasun haren ertzean, plazaren albo batean kokatuta zegoen Balbe, herriko taberna. Hitzordua baino lehen heldu zen Puskas Balbera, baina kanpoan hotzez itxaroten egon beharrean barrura sartzea erabaki zuen.

01 Atxaga, B., 2003, “Soinujolearen semea”, Pamiela, Iruña, 75-76.

Barrura sartu zenean esperantza gutxiz bere lagunak heldu ote ziren begiratu zuen, baina susmatu bezala oraindik ez ziren bertara agertu. Poltsikotik txanpon bat atera eta ardoa eskatu zion Maialeni, Balbeko tabernari gazteari. Bera zen herrian gelditzen zen gazte bakarra. Besteak hirira joan ziren herria abandonatuz. Maialen berez ez zen herrikoa, hamabost urte lehenago joan zen bere amarekin herri hartara. Eskatutako ardoa ateratzean, Puskasek, kontu handiz hartu eta mahai baten eseri zen lagunak noiz etorriko zain.

Balbe taberna polita zen. Txikia baina atsegina. Hormetan argazki zahar ugari ikus zitezkeen; herriko apaiz zenarena, 42ko elurtearena, taberna egon aurretik bertan zegoen gerezondo zaharrarena eta herrian esanguratsua ziren beste hainbat herritar eta tokirena. Hiruzpalau egurrezko mahai ere bazeuden. Balbe bigarren etxe bat bezalakoa zen herritar askorentzat. Maialen eta bere ama Maria Jesus oso atseginak izaten ziren herritarrekin, eta herritarrek estimu handian zeuzkaten ama-alabak. Tabernari begira ari zela Puskasek Kattalinekin izaten zituen eztabaidak gogoratu zituen taberna zela eta ez zela. “Joxe Mari – emazteak beti deitzen zion bere izenez-, ez dut taberna hori gustuko! Ziur nago ez duela gauza onik ekarriko”, “Emakumea taberna bat besterik ez da, lasaitu zaitetz”. Eguneroko eztabaidak ziren.

Egun baten Puskas berandutzen ari zela bere emaztea tabernara joan zitzaion bila. Haserre zegoen Kattalin. Tabernara sartu zenean ordea, Maialenek eta Maria Jesusek hain ondo tratatu zuten, bertan gelditu zela senarrarekin katilu bat esne bero lagun zuela. Handik sei egunera hil zen Puskasen emaztea gaixotasun ezezagun batek jota.

Oroitzapen latz horiek gogoratzen ari zela sartu ziren tabernara Tomas eta Joxe, muturluze eta triste.

- Zer duzue horrela egoteko?- galdetu zuen Puskasek lagunaren aurpegi goibelak ikustean.

- Nola zer dugun, ez al dakik atzo zer gertatu zuan ala?- erantzun zion Joxek.

Puskasek sorbaldak altxatu zituen erantzunaren zain.

- Sabino hil duk.

Puskasek ezin zuen sinetsi. Joxeren aurpegian irribarre bat noiz margotu zain gertatu zen, adar jotze bat izango zenaren esperantzaz, baina ez zen halakorik gertatu.

- Ezinezkoa duk. Atzo hemen utzi nian pozez kantuka.





Aurreko egunean hain bizi ikusi zuen pertsona hil zela ezin zuen onartu, bihotza beregain bildu zitzaion, ezpainek dar-dar egiten zioten eta hitz egitea kosta egiten zitzaion.

- Ba egia duk. Etxerantz zihoala elurrarekin irrist egin eta buruan kolpe bat hartu zian. Gaur goizean aurkitu ditek elur urtuan botata.

Hiru lagunak mahaiari begira geratu ziren, mahaiak zerbait azalduko balie bezala, baina mahaiak ezer esaten ez zuenez jarrera aldatu zuten. Poltsikotik dirua atera eta hiru baso erdi eskatu zituen Tomasek. Maialenek eskatutakoa atera zion.

- Sentitzen dut zuen lagunarena.

Tomasek keinu bat egin zuen buruarekin eskerrak emanez eta mahaira itzuli zen neskaren begi urdinei azken begirada bota ostean. Mahai inguruko aukietan eserita berriz ere isiltasun astun bat nagusitu zen hiru lagunengan. Isiltasun astunegia, zeuzkaten ehun eta laurogei urteak baino astunagoak. Begiradak marra infinitu bat ziren airearen unibertsoan. Leihotik at, lurretik at edo tabernariaren begi urdinetatik at, begiradak hari infinituak ziren, noiz hautsiko zituzten zain egoten zirenak.

- Noiz duk hileta?- Puskasen hitzak guraizeak bezala moztu zituen marra infinituak.

- Bihar zazpietan.

- Ezin diat sinetsi lagunok.

- Ba egia duk Puskas. Nik ere Tomasek esandakoan ezin izan diat sinetsi, baina hala duk. Gainera ohitzen joan behar gaituk. Azken urte hauetan gero eta jende gehiago hiltzen ari duk.

Puskasek buruarekin mugimendu bat egin zuen, nostalgia puntu batekin, arrazoia emanez bezala. Elkarrizketa bukatuta berriro ere isiltasuna beraiekin batu zen. Egoera hari aurre egin ezinik amore eman zuten; baso erdia amaitu bitartean hari ikusezinari eusten irau zuten. Ondoren etxerako bidea hartu zuten elur maluta berrien azpian.

Hurrengo egunean herritar guztiak joan ziren elizara. Puskasek igandeetako arropak jantzi zituen eta hileta hasi baino lehenago elizaren atarian zegoen. Eliza txikia zen eta jendez beteta zegoen jada. Bere lagunak non egongo begira jarri zen eta handik gutxira Tomas ikusi zuen atetik hurbil auzokoarekin hitz egiten. Beraingana hurbildu zen eta pixka batean hitz egiten egon ondoren, Tomasen auzokoa bere lagun batzuekin elkartu zen lagun zahar biak bakarrik utziz.



- Joxe ez al duk etorri?

- Ez. Goizean egon nauk berarekin eta emaztea gaixorik zeukala esan zidak. Okerrera egin ezkerro hiletara ez zela etorriko esan dik.

- Eguraldi madarikatu hau! Garai txarrak dituk, orain hogeituro urteko eguraldia bezain txarra duk hau.

- Bai, baina zorigaiztoko haiek ez zituan eguraldiaren ondorio edo kulpa izan, ijitoarena baizik.

Puskasek ez zuen ezer erantzun hileta hastera baitzihoan, baina bere lagunak esandakoak hogeituro urte atzeratu zuen bere pentsamendua, 1942ko negurarte.

1942ko otsaila zen ijitoa herrian sartu zenean. Inork ez zekien nondik agertu zen. Berria bolo-bolo zabaldu zen herrian eta apaiza berehala joan zitzaion babesema ematera. Gizon isila zen ijitoa, herritarrekin asko erlazionatzen ez zena. Horrek, eta ijito izanda herrian bakarrik agertzeak misterio puntu bat ematen zion.. Herritar askok mesfidati begiratzen zioten, ez baitzitzaien normala iruditzen kanpotar bat besterik gabe beraien herrian bizitzea. Jendea kezuka joan zen apaizarengana, beltzaran begi urdin ezezagun hark ez zuela herri- gauza onik ekarriko esanez, baina apaizak lasai egoteko esaten zien, pertsona ona zela eta ez zuela arazorik sortuko.

Hasierako egoera haren ostean giroa pixka bat baretu zen. Hala ere ijitoa ez zen sekula herritarrekin erlacionatu. Apaizaren babespean zegoen eta zurgin ofizioa ikasi zuen Puskasekin. Egunak eta asteak pasatu ahala herriko jendeak kasu gutxiago egiten zion ijitoari eta hau etorri aurreko bizitza egiten jarraitu zuten jatorri ezezaguneko pertsona hura herrian ez balego bezala. Ijitoa bakardadean bizi zen, baina zoriontsua zen non lo egin bazeukalako. Gainera Puskasekin noizean behin lan egiten zuen eta lagun onak egin ziren. Egoera lasai hura ordea udaberria etortzean bukatu zen.

Martxoaren hogeituro bosta zen. Temperatura asko jaitsi zen eta hodeiak elkarren kontra metatu ziren. Egurdian hasi ziren lehen elur malutak herriko lurretan erortzen. Elur malutak goitik behera, gauerarte jarraitu zuten herria zuritzen haurren gozamenerako. Zortzi egun iraun zuen elur jasa hark eta hogeituro zentimetroko sakonera zegoen elurretan. Gauez hodeiek alde egin zuten izarrei lekukoa utziz. Hurrengo egunean eguzkiak elurra urtuko zuela uste zuten herritarrek, baina hodeiak goizean goizetik metatu ziren eta egunean zehar beriz

ere elurra egiten hasi zen. Gaueko hamarretan hodeiek berriz ere alde egin zuten. Herritarrek ezin zuten kasualitate hura sinistu, baina eguzkiak hurrengo egunean elurra urtuko zuen esperantzaz oheratu ziren. Hurrengo egunean ordea aurreko egunetako eguraldia errepikatu zen; gaueko hamarrek arte hodeiak, hotza eta elurra, eta horrela jarraitu zuen hurrengo egunetan ere. Hirurogei zentimetroko elur geruza zegoen herri guztian zehar eta eguzkia irten arte ezinezkoa zen egoera hari aurre egitea. Aste bete igaro zenean zurrumurru bat zabaldu zen herritarren artean: herriak maldizio bat zeukala eta ijitoa zela maldizio haren erruduna. Zortzigarren egunean egoera aldatu ez zela ikusi zutenean herritar guztiak apaizaren etxera joan ziren eskuetan aizkorak, aitzurrak, segak eta harriak zituztela. Puskas apaizarekin eta ijitoarekin zegoen momentu hartan. Apaizak leihotik ikusi zituen hurbiltzen herritar haserre-
tuak beraien tresnekin elur artean nekez ibiltzen. Herritarrek geldiarazteko asmoz apaiza atera irten zen, “Etorri hadi hi ere” laguntza eskatu zion Puskasi, baina beldurrak geldiarazita Puskas sukaldeko txoko batean geratu zen ijitoaren begirada eutsi ezinik. Apaizak ahal zuen beste eutsi zien herritarrei, baina azkenerako indarrez sartu ziren etxe barrura ijitoaren bila. Sukaldera sartu zirenean, leihotik ikusi zuten ijitoak elur artean nola ihes egiten zuen.

Ijitoa ez zen herrira sekula itzuli eta elurteak beste aste bete iraun zuen, baina elurtea gelditu zenean herritarrek maldizioa hautsi zutelako izan zela uste izan zuten.



Puskas bere pentsamenduetatik bueltatu zenean jendea eliza barrutik atarirantz irteten ari zen. Herriko lagunak agurtu eta Sabinoren alargunari doluminak ematera joan zen Puskas. Ondoren Tomasekin elkartu zen. Hitzik sortzen ez den egoera horietako bat zen. Bi agureak, mutu, bazekiten minutu batzutan ez zutela hitz egin behar, absurdua izango zela. Isiltasun horretan Balberantz abiatu ziren hezur zaharrak astiro mugituz.

Hiletak iraun bitartean eguraldiak okerrera egin zuen, hodeiak ilundu egin ziren eta tenperatura asko jaitsi zen. Hala ere Balbera iristeko ez zuten arazorik izango. Taberna elizatik nahiko hurbil zegoen, eliza plazako bide zaharretik gora baitzegoen eta taberna plazan bertan. Bidea laburra zen, baina aurreko egunetako elurteak aldapa labur hura guztiz busti zuen eta Puskas eta Tomas astiro jaisten ari ziren. Kezka aurpegiarekin jaisten ari ziren agure biak. Bata aldapak sortzen zion kezkaekin eta bestea oroitzapenak sortzen zion kezkaekin. Nola ahaztu gertakari hura? Hogei urte pasatu eta gero ere lotsa sentitzen zuen Puskasek. Bere herriaz ez, herritarrez. Herria zoragarria zen. Zenbat aldiz jolastu ote zuen kale zahar haietan, zenbat arrankari harrapatu ote zituen erreka hartako ur gardenetan eta zenbat aldiz igo ote zen mendi eder haietara. Ez, herriak ez zeukan kulparik. Gertakari hura ordea ezin zuen ahaztu. Amesgaiztoetan agertzen zitzaion ijitoa bere begi urdinekin laguntza eskatzen, baina Puskasek ez zion laguntzen. Burua biratu nahi zuen, baina ez zeukan indarrrik eta orduan ijitoaren begi urdinak beira bezala hausten ziren, gereziondoaren oinetan bere hondarrak utziz. Puskaz izerditan esnatzen zen, arnasestuka.

Beste herritarrek ordea ijitoa joan zenetik lasai bizi ziren. Hala ere Puskasek herritarrei ez zien inoiz ezer aurpegiratu, ezta bere lagunei ere. Hura zen bere herria eta ez zeukan nora jo. Herritarrekin eta lagunekin ondo konpontzea beste aukerarik ez zuen.

Garai haiek gogoratzen ari zela ohartu zen aldapa guztiz jaitsi zutela. Plazara heldu ziren. Aurreko egunetako elurtearen arrastoak oraindik ikus zitezkeen. Gereziondoaren oinetan eta etxe ondoetan oraindik elur arrastoak ikus zitezkeen. Tenperatura asko jaitsi zen eta plazan, etxeen babes gabe haize hotzari aurre egitea gogorragoa zen. Hotzak eta lur lauak bultzatuta Puskasek eta Tomasek pausua bizkortu zuten tabernarantz. Tabernako atea zabaldu zutenean, normala zenez, hiletan egondako herritar asko aurkitu zituzten. Esperantza askorik gabe eserleku librerren bat aurkitzen saiatu, baina ordurako eserleku guz-

tietan herritarren bat zegoen hankei su-eten bat eskaintzen. Gorputza berotzeko barrara hurbildu eta bi baso erdi eskatu zizkioten Maialeni. Tragoak eskuetan hartu eta herriko jendea-ri begira geratu ziren. Zenbat aldiz errepikatu zen eszena hura azken urteetan? Askotan. Gehiegitan. Azkeneko urteak zorigaiztokoak izan ziren. Puskas tabernan zeuden herritarrei arretaz begiratzen ari zen. Bazekien herritar horietako bat izan zitekeela hurrengo, barruko mezulari ezezagun batek esaten zion. Baso erdiari azken tragoa eman eta Maialenengana biratu zen beste bi baso erdi eskatzeko. Bi begi urdin haiek inoiz baino urdinagoak iruditu zitzaizkion Puskasi eta ordaintzean begirada bi putzu urdin haietan finkatu zuen segundo batez. Lau begien artean sortu ziren hariak informazio bide bihurtu ziren. Puskasek informazioa jaso zuen, baina ez zuen ulertzen esanahia. Erdi kezkatuta erdi harrituta burua biratu zuren eta Tomasi baso erdia eskaini zion. Momentu hartan bi eserleku libre geratu ziren eta bertan esertzea erabaki zuten.

- Zer duk?- galdetu zion Tomasek- arraro sumatzen haut. Sabinorenagatik duk?

- Bai.- erantzun zion Puskasek, nahiz eta bazekien erantzun hark ez zuela Tomas konbentzitu, ezta bere burua ere.

Aulkietan eserita leihotik kanpora bideratu zuten begirada. Elurra ari zuen. Ez aurreko egunetan bezala baina elur maluta txikiak pixkanaka-pixkanaka plazan finkatzen ari ziren. Seigarren eguna zen elurra egiten zuela. Egun asko ziren, baina dagoeneko herrian ohituta zeuden. Tabernan oraindik jende asko zegoen eta kanpoko hotza ez zen barrura sartzen, tabernako atea zabaltzen zenean izan ezik.

- Nahi al duk beste baso erdi bat?- galdetu zion Puskasi Tomasek.

- Bai.

Tomasek hirugarren baso erdia zekarrela, jende asko tabernatik irteten hasi zen eta bat-batean taberna ia hutsik geratu zen. Tomas eta Puskas kenduta beste hiru herritar bakarrik geratzen ziren. Etxebixikiko Juan eta San Antonioko Larrinaga anaiak. Bakardade hark giroa hoztu eta tristatu zuen. Isiltasuna nagusi zen tabernan eta Puskasek eta Tomasek tragoa bukatu orduko beste hiru herritarrek alde egin zuten. Bi lagun zaharrak elkarri begira geratu ziren zer egin behar zuten ez balekitez bezala.



- Guk ere alde egin beharko diagu ezta?- galdetu zuen Tomasek baiezko erantzun baten esperantzaz.

Puskas erantzutera zihoan, baina begirada alxatu zuenean Maialenen begi urdinak finkatu ziren bereetan eta berriz ere zerbait esaten ari zela iruditu zitzaion.

- Segi ezak etxera nahi baduk, nik beste trago bat hartuko diat.

- Nahi duan bezala. Bihar arte.

Tomas aulkitik alxatu eta pauso geldoan aterantz hurbildu zen. Atea zabaltzean eskua alxatu zuen “ikusitako arte” esango balu bezala. Tomasek alde egin zuenean Puskas leihotik begira geratu zen. Elurra ari zuen, gutxi baina lurra berriz ere zuritzen ari zela ikus zitezkeen. Begirada leihotik kendu eta barrara hurbildu zen. Maialen basoak garbitzen ari zen irribarre urrun bat aurpegian margoturik zuela.

- Baso erdi bat- eskatu zuen Puskasek.

Maialenek baso garbitu berri batean ardoa bota eta barra gainean utzi zuen. Ez zion ezer esan. Leihotik begira geratu zen. Elur-malutak gero eta bizkorrago erortzen ari ziren. Plaza zuritzen ari zen eta gerezioaren hostoetan elur habiak ikus zitezkeen. Puskasek Maialenen begirada berreskuratu nahi zuen, leihotik kendu eta bere begietan finkatu, oraindik ez zuen lehenago emandako informazioa ulertu ahal izan. Puskasek begirada neska gaztearen begietan finkatu zuen burua noiz biratu zain. Maialen puntu infinitu batera begira zegoen. Irribarre urruna ezabatuta, espresio gabe, izotz bloke bat bezala, geldi. Maialenen gorputza, hotz, isilik, arima gabe zegoen. Puskasek zerbait esan nahi zuen, egoera aldatu, baina ez zitzaion ezer zentzudunik bururatzen. “Ardo ona”, “Kanpoan hotz egiten du” edo “Sabinorena ere” esatea pentsatu zuen, baina isilik geratu zen. Maialen oraindik leihotik begira zegoen. Puskasek ezin zuen sinetsi. Ez al zuen bezeroak errespeturik merezi? Ez al zuen agure hark atentzio pixka bat merezi? Eta batez ere, ez al zion Maialenek azaldu behar lehenago berari zuzendutako begirada? Jakin-min handia sortu zion begirada hark, begi urdinen begirada hark. Bazekien Maialenek ez zuela agure batekin oheratu nahiko, aukera hori hasieratik baztertu zuen. Begirada hark zerbait esan nahi zuen, zerbait garrantzitsua. Hamabost urte zeramatzen Maialenek eta bere amak herri hartan eta inoiz ez zion Maialenek horrelako begiradarik zuzendu. Begirada hura berezia zen, hain berezia azken bi orduetan Balben geldiarazi zuela.

- Udaberri gogorra da aurtengoa. Hobe duzu etxera joatea.

Puskas harrituta zegoen. Maialenen begi urdinak bere begietan finkatuta zeuden. Zerbait esatera joan zen, azalpenen bat eskatzera, baina leihotik elurra mara-mara ari zela ikusi zuen eta aterantz zuzendu zen.

Tabernatik irten zenean plaza zurituta zegoen. Elurra leku guztietan zegoen; egurrezko banku zaharretan, irteerako iturrian, etxeetako teilatuetan... Dena zegoen zuriz jantzi-ta. Puskasi txikitako oroitzapenak etorri zitzaizkion burura. Herriko lagunekin elurretan jolasten ikusi zuen bere burua, irrifartsu, korrikan alde batetik bestera lagunei elur bolak botatzen. Orduak egoten ziren arropa lodien babesean fikziozko gauetan. Eta gero etxera bueltatzen ziren, beheko suaren berotasunera. Han, berotasun gozo hartan esne beroa edaten zuen Puskasek bere bi anaiekin eta bere gurasoekin batera eta aitak ipuin harrigarriak kontatzen zizkien. Otso eta hartzei buruzko ipuinak, gazte adoretzu eta neska bahituei buruzko ipuinak. Berandurarte egoten ziren horrelako egunetan suaren inguruan, suari begira, suaren barnean mundu berriak ikusten, begiak bero, munduko zorientasun guztia lau pareta haien barruan kontzentratuko balitz bezala. Gero lotara joaten ziren. Anaia gaztearekin eta anaia zaharrarekin logela berdinean egiten zuen lo eta maindire azpian etorkizunari buruz eta bizitzari buruz galderak egiten zituzten. Azkenean, nekatuta, kezkarik gabe lo hartzen zuten.

Baina horiek beste garai batzuk ziren.

Plazako zurtasunean hotza nagusi zen. Tabernan izandako berotasuna berehala kendu zitzaion Puskasi. Elurra ez zen gelditzen eta haizea gero eta indartsuago bilakatzen ari zen. Pauso geldoz eta etxera lehen bait lehen iristeko asmoz Puskas Balbeko atletik urrun-tzen hasi zen. Elurrak esku bateko sakonera hartu zuen ordu gutxian. Puskasen pausuak motelak ziren, ez zirudien aurrerantz egiten zuenik. Alkoholak eta elurrak nekea areagotzen zuten eta hanketan hotza sentitzen hasi zen. Pausu bakoitzean sendoago zapaltzea erabaki zuen, hanketako hotzari aurre egiteko, baina horrela ibiltzeak izugarri nekatzen zuen.

Elurra ez zen gelditzen. Puskasen arropetan elur malutak etengabe erortzen ziren eta pixkanaka-pixkanaka iturri, banku edo teilatu bat balitz bezala zuritzen hasi zen. Plaza erdirantz zihola, sorbalda guztiak zurituta zituen. Txapelaren goialdea zuri-zuri zegoen, iri-nez estalita bezala. Elur maluta lodiak ziren, bizkortasun handiarekin erortzen zirenak.






Pausu bakoitza elur sakonera handiagoan ematen zuen Puskasek. Etxerako bidea abentura bat bihurtu zen, abentura arriskutsu bat. Buelta ematea pentsatu zuen eta Balbera sartzea. Burua biratu zuen tabernarantz, baina berehala kendu zuen ideia hura burutik. Burua berriz gorputzaren norabidean jartzean ordea zirrara batek zeharkatu zuen Puskasen gorputza. Ez zen haize hotza eragindako zirrara edo hotzikara bat, ez zen hanketako minak eragindako zirrara bat, irudi batek eragindako zirrara bat zen. Balbeko leihoan begi urdin batzuk ikusi zituela iruditu zitzaion, bere amesgaiztoko begiak bezalakoak. Buelta eman nahi zuen ikusi zuena gezurtatzeko, gorputza ez zen mugitzen ordea. Bere ametsean bezala, ez zeukan adorerik begietara begiratzeko. Negar egiteko gogoekin eta pausu nekatuarekin alde egin zuen Puskasek gereziondoa atzean utziz.

julene azpeitia
lehiaketa 2005

b e r t s o
p a p e r a k





Xabier Goxencia

Irabazlea 11-12 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola





Bertso paperak

Txapela irabazi dut
bertso txapelketan
horrekin egin dut nik
beti ametsetan
nire ama egon da
arrautza erretan
esan diodanean
jausi dala bertan

Bertso ona egin dut
irabazi ostean
ni barrezka hasi naiz
etxeko bidean
nire aitak ta amak
disgustu txarrean
dana konponduko da
Jon datorrenean

Txapela irabazi dut
Txirritan ondoan
hil zala oso triste
hurrenge egunian
nik segidu egin dut
kaleko giroan
nire ama egon da
taberna batian





Eñaut Uruburu Martinez

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga ikastola



Zutaz

Zenbat poz eta desgrazi
hainbat une gozo-gazi
kontue ez zan bardin amaitu
eta bardin hasi
juen zinela ihesi
onartzen ez dot ikesi
zure agurrik txikiena be
ez al dot merezi

Argitu ta berehala
mendire beti bezala
baina ilunek iruntzi eutsun
osteko itzala
galdu egin zinen ala?
ze, ez da gauza normala
itxura danez ahaztuko jatzun
bueltau behar dala

Ta barriro be gaurkoan
badakit noraino noan
Untzillatxeko oroitzapenak
ezin diez joan
motxila bataz lepoan
betiko modu tontoan
tontorreraino igo izan naz
han zauzelakoan






Tontorrera heldu naz, bai
itxaropena dot etsai
denporak hegaz egiten dau ta
ezin egon lasai
laster agertu zaitez, ai!
hemen naukozu zure zai
ez zagozela badakit baina
ez dot sinistu nahi

Nire ametsen menpeko
bihotzik ez dot beteko
juena juen da, ta nahi ez arren
bueltarik ez deko
irribarre bat tarteko
hau dot zuri esateko
lagune zutaz oroituko naz
pausu bakoitzeko





Iraitz Arando Azkarraga

Akzesita 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Emon bostekoa

Ibilaldian laguntza emanez
edozein lan eittearren
haur, gazte, heldu eta guztiok
ondo dakigu zer garen.
Hona heltzeko lan asko eginda
askok sinistu ez arren
eskerrik asko guzti guztioi
bostekoa luzatzearren.


Ibilaldia bihurtu zaigu
azken aldian ohitura
batzuk ez daude konforme baina
guri ez zaigu ardura.
Proiektu berri ugari ditu
Ibilaldiak helmuga
lehenago amets bat izan zena
orain egi bihurtu da.





Txiki-txikiak ginenetik gu
hau digute irakatsi
eta nor garen eta zer garen
behar dugu erakutsi.
Gogor erantzun behar da orain
eta ez gara ez gutxi
gauza denetan indartsuena den
gure euskarari eutsi!

Gure ikastolen mugimenduak
darama jende tropela
gauza handiak egin daitezke
segi ezker horrela
Euskal Herriko Ikastolentzat
egun eder ta itzela
oztopo danak pasauko doguz
datorrena datorrela.

Ibilaldia badator eta
giroa sekulakoa
gazte, heldu ta euskaldunentzat
egun hau da gustukoa.
Euskal kultura bultza dezagun
guk dugu beharrezkoa
Ibaizabal ta Ikastolari
emaiezu bostekoa.




bertso paperak



Gontzal Alkorta

Irabazle 17-18 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Ekialde Hurbileko herrialde famatuaren gatazka

Doinua: Munduan libre bizi izatea

julene azpeitia lehiaketa • 2005 urtea

Gerra batean bi alderdiek
nahiz egiten duten galdu,
Palestinako gerra urtero
egiten zaigu azaldu.
Basamortuko lur idorretan
odol errekak zabaldu.
Gerran inor ez da salbu
jende aberatsa salbu.
Arrazoiaren printzipioak
egin dituzte zapaldu:
gerrarik inork ez du nahi baina
bakerik inork nahi al du?

Harri berean bi aldiz jausi
nahiz ta egon mila harri,
Naziek ere egin zituzten
hainbat gauza izugarri,
bizitza baino zerbait gehiago
kenduz hainbat judutarri.
Giza aberea sarri
denez mendeku egarri,
berriro ere faxismoaren
askatasuna ezarri,
holokaustoko errautsak dira
Israeldarren ongarri.



Urte luzeak pasa dituzte
tunel beltzean barrena
eta argirik piztu nahi eza
erabakirik txarrena.
Pertsona denok hanka beretik
egiten dugu herrena,
beti berdina da dena
aurrez aurre dator trena,
nora begira ote zegoen,
guda hain da nabarmena,
ekaitza joanda barealdia
datorrela zioena.

Trena aurretik datorrenaren
itxura du trenbideak,
bertan loturik ikus ditzaket
gaur giza eskubideak.
Gerrak baditu bi aliatu
ehiztari paregabeak,
arma saltzaile trebeak,
isil jokutzen hobeak.
Elkarlan honek ireki ditu
giza ehizaren bideak:
Amerikarren diruak eta
gure pasibidadeak.

Basamortuko tren galdu horri
begira egin dut negar,
dirudun batzuk soilik dabilta
lasai desertuan zehar.
Arrazoiaren balore oro
dago egarriz hiltzear,
nahiz ta bera zen lege zahar
dolarra gainetik ezar.
Bi alderdiek ezin hobeto
ezagutzen dute elkar
eta dirua duenak ez du
elkarrizketarik behar.

Zenbat pertsona ikusten diren
odolezko malkotan blai,
bihurtu dira heriotzaren
itsasontzi beltzaren kai.
Mundua dugu ardi galdu bat
eta Amerika artzai.
Lehen izanagatik anai
gaur egun elkarren etsai.
Alfer-alferrik ez ote gaude
erantzun mutu baten zai,
inork ez daki pentsatzen edo
inork ez du pentsatu nahi.





Ongi dakigu ez dugula nahi
guk besteren arazorik,
antza munduan jazotzen denak
ez du garrantzi handirik
eta inporta digunoi berriz
indarrak ihes ahotik.
Urruti egonagatik...
ez da laguntzen, zergatik?
Beste aldera begiratzea
erraza dela badakit,
baina ez esan tiro soinurik
entzuten ez duzenik.

Ezin da ahaztu basamortuan
gabiltzala egunero,
nahiago nuke guztiotzako
oasirikan balego,
baina aurkitzen diren guztiak
espejismo dira edo.
Heriotzaren bezero
garela ez ahaztu gero!
Etorkizunak ez ehorztea
inork ez beza espero
oraina dena iraganean
ehorzten hasi ezker.

